

# FRANTZISKOTARREN EUSKAL HERRIKO HISTORIA

## (c. 1220–2000)

Joseba INTXAUSTI

Azalpen honek, bere argibide nagusietan, Euskal Herrian izan ditugun Ordena, Kongregazio eta mugimendu frantziskotarren historia laburtua eman nahi du. Uste daiteke lehen fraide frantziskotarrak laster agertu zirela gure artean (¿1220 inguruan ote?), seguruenik Santiago-Bideari jarraikiz. Urte-modu haietan ezagutzen dugu, gainera, Iruñeko klaratarrei buruz ari den Aita Santuaren gutun bat, 1228koa. Hurrengo harmarkadatik aurrera datatzen dira fraideen lehen Komentuak (Iruñea, Gasteiz, Baiona, etab.). Dinamika honen ondorioz, 1282an zazpi fraide-komentu zenbatzen dira Nafarroa, Araba eta Lapurdin; kopuru horrek hurrengo mendeetan gora egingo du: 1567an, 19 ziren horiek, XVI.aren erdialdea pasata mojek 23 Monasterio zituzten bitartean. Aro Modernoa amaitzean (1791, 1797), eta estatistika honetan kaputxinoak ere gogoan ditugula, fraide frantziskotarrak 994 ziren Euskal Herrian eta mojak 608 (orotara, bada, 1.552 erlijioso frantziskotar). Esklaustrazioek moztu zuten hau neurri handi batean, Iparraldean bezala (1791) Hegoaldean (1809, 1822, 1833...). Dena den, Komentu itxien izanberritzea ez zen gehiegi atzeratu, zeren eta 1851/1859an lehenengo ekinaldian eta, bigarrenez Penintsulan, 1876tik aurrera izanberritzeko egitasmoa abiarazita baitzegoen. Izanberrikuntza hori, ordea, mantso joan zen lehen hamarkadetan, eta bere estatistika-erpina 1960etako hamarkadan jo zuen Kantabria/Arantzazuko Probintzian<sup>ofm</sup>. Bien bitartean, klausura hertsiko mojek (klaratar, sorkundetar eta elisabetarrak), gorde ahal izan zuten, bere funtsean, betidanik zetorkien Komentu-sarea (XX. mendearen bukaeran 37 Monasterio). Beste Familia erlijiosoetan bezala, Aro Garaikideko berritasun nabariena emakumezkoen Kongregazio ekileen ugaltzea da Euskal Herriko frantziskotarren kasuan ere: 13 Kongregazio frantziskotar berri (frantziskotarrak<sup>ofm</sup> eta kaputxinoak) XX. mendean zehar Etxe ugari irekiz. Hirugarren Ordenaren goraldia ere aipatu behar da, 1882tik aurrera eta XX.eko lehen mende-erdian batez ere, 1960etako hamarkada arte. XX.eko azken hamarkadetan, beheraldi demografiko nabaria sumatzen da Institutu frantziskotarre-tan, Institutuen antolaera eta bizi-moduetan ere aldakuntza nabarmenak ikus daitezkeelarik. Orain, XXI.aren hasieran ari da bukatzen 150ren urteko azken bizi-zikloa.

*Esta síntesis histórica trata de mostrar, a grandes rasgos, la historia de las Ordenes, Congregaciones y asociaciones franciscanas presentes en el País Vasco. Puede pensarse que los primeros frailes franciscanos llegaron pronto (¿hacia 1220?), siguiendo probablemente el Camino de Santiago. Conocemos también tempranamente un documento pontificio que habla de las Clarisas de Pamplona (1228). De inmediato, se sucedieron diversas fundaciones de frailes, fundaciones bien datadas (Pamplona, Vitoria, Bayona, etc.), de tal modo que en 1282 se contabilizaban ya siete Conventos de religiosos en Navarra, Alava y Lapurdi, cifra que en 1567 llegó a ser de 19, mientras que a mediados del XVI eran ya 23 los Monasterios de monjas. Al final de la Edad Moderna (1791, 1797), y comprendidos en la estadística también los capuchinos, los religiosos franciscanos llegaron a ser 994, mientras las religiosas eran 608 (un total de 1.552 franciscanos/as en Euskal Herria). Las Exclaustraciones, tanto en Iparralde (1791) como en la Península (1809, 1822, 1833...) pusieron fin a esa larga y frondosa historia. No obstante, la restauración no se hizo esperar y desde 1851/1859 primero y a partir de 1876, en el segundo intento peninsular, la Prov. de Cantabria/Arantzazu irá rebaciéndose, aunque muy lentamente. La cumbre de este desarrollo se sitúa, en el caso de los religiosos<sup>sm</sup>, en los años 1960. Entretanto, las monjas de clausura papal (clarisas, concepcionistas, isabelinas) mantuvieron básicamente la red de sus antiguos Monasterios (a fines del s. XX, eran éstos 37). De forma similar a lo sucedido en otras Familias Religiosas, la gran novedad de la Edad Contemporánea es la presencia de las Congregaciones femeninas de vida activa (hasta 13 Congregaciones, franciscanas y capuchinas), estableciendo numerosas Casas en el País durante la última centuria. Se recuerda también el florecimiento de la Tercera Orden, en especial desde 1882 y a todo lo largo de la primera mitad del s. XX, hasta los sesenta. Las décadas finales del siglo pasado muestran un claro declive estadístico, cambios importantes en las formas de organización y vida de los Institutos. Se cierra un ciclo de 150 años.*

Frantziskotarren Familia eta mugimendua XIII. mendean sortu zen, Eskeko Ordenak jaio ziren mendean; geroztik xarma bizia izan du mugimendu honek, katolikoentzat eta ez-katolikoentzat, kristauen-tzat eta ez-kristauen-tzat ere. Herri xumeak ez ezik intelektualek ere maite izan dute bere jatorrian duen mezua (beha hor, gaur egun, Le Goff historialaria edo Saramago eta Dario Fo Nobel Sariak: ik., adibidez, Saramago: 1985).

Sortzaileen aurreneko belaunaldian iritsi ziren Euskal Herrira lehen frantziskotarrak, itxura guztiz Santiago-Bideari jarraikiz. Harez gero, gaurdaino bizi izan dira gure artean, eta bertako seme-alabek esku-hartze iraunkorra eta zabala izan dute Familia eta mugimendu honetan.

Ez dugu estatistika orokor jarraiturik hori dena zenbatekoa izan den eta aldatuz nola joan den jakiteko, baina badago hainbat datu jakingarri beraren pisu erlatiboa eta absolutua ere une jakin batzuetan zenbatekoa izan bide den barruntatzeko.

Non eta nola jaio ziren, ordea, frantziskotarrak?

## 1. LEHEN BI SORTZAILE PROTAGONISTAK

Bi gizon-emakume ditu bere sorburuetan Familia erlijioso honek: Frantzisko Bernardone (1182-

1226) eta Klara Favarone (1194-1253), biak herri berekoak: Asiskoak. Eta biak kasik belaun berekoak, hamabi urteren aldea baitzuten bakarrik. Adin-alde handirik ez, baina bata bestearen gidari izateko lain bai, nonbait. Frantzisko gazterik hil zen 44/45 urterekin, eta Klara 59 edo urte zituela; hortaz, Frantzisko baino 27 urte geroago.

Bien arteko adiskidetasuna eta laguntza garrantzizkoa gertatu zen, geroko mugimendu frantziskotarraren oinarritzko bikoiztasuna –fraide eta mojeena, alegia– segurtatzeko ez ezik, mugimenduaren jatortasun ebanjeliotarra zaintzeko ere.

### 1.1. LEHENENGO GIZONA ETA IZENA:

#### FRANTZISKO ASISKOAK

*Francesco*/Frantzisko, bataioz “Giovanni”, familia burges jaso batekoa zen, Madonna Pica eta Pietro Bernardone-ren semea, diruz ongi zebilen sendikoa. Seme burges honek gora egin nahi zuen, aristokraziara igo eta garaiko zalduneriaren loria eta jaietan esku izan. Gerrara joan eta preso egotea ere suertatu zitzaion, Perugian, 20 bat urte zituela (1202); hala ere, eskarmentu horrek ez zituen gaztearen burutazioak sobera aldarazi (Leclerc 1994: 37-38).

1204an, gaixoaldi baten ondoren, berriz ere gerrarako bidea hartu nahi izan zuen; horretan zebilela, berea omen zuen jauregi eder baten jabe egin zedin eskatu zion ahots batek ametsetan. Ostera gerrara joan nahi eta Puglia-rako bidean zela, bigarren amets batek itzularazi zuen Spoleto-tik etxera (ezaguna da Erdi Aroan ametsek zuten aholku eta prediku-balioa: Manselli 1997: 58; Le Goff 1999: 287-293, 689-751; Le Goff/Schmitt 1999: 950-968).

Ez zebilen, nonbait, sosegu onean gure gaztea. Biografoek ongi argitu ez diguten krisi moral batean sartu zen orduan. Zergatik ez dakigula, bizitzarako balio-hautapen berria egin beharrean aurkitu zuen bere burua, eta 23 urte zituela (1205), bi gertarik bultzatu zuten aukera hori egitera: legendar-dun batekin topo egin zuen, eta beraren aurrean, “gortesau-eskuzabaltasuna” gaindituta, “errukizko bihotz-zabaltasunari” eman zion leku; musu eman zion gaixoari, eta beraren musua hartu (elkarri musu eman zioten biek!). Hori izan zen Frantziskoren konbertsioko une erabakigarria (Manselli 1997: 62), baina ez bakarra. Berehala, San Damiano-gorutzeak Eliza izanberritzera deitu zuenean, beste gisa batean berretsi baitzuen deliberamendu hura (TC 11 eta 13).

Laster, aitarekin hautsi beharrean aurkituko da, etxeko dirua bere burutaziazko obretan “modu txarrean” eralgitzen zebilela salatu zionean (1206), eta eliza hondatu eta eroriak inoren diruz jasotzen (1206-1208): esan nahi baita, ez zegozkion eskulanetan eta lekuz kanpoko eliz jardunetan. Aitarekin haustean, familiarik zetozkion gizarte- eta klase-loturak formaltasun osoz eten zitzaizkion Frantziskori.

Hurrengo unean, Ebanjelioari adi zegoelarik, “Misioaren Ebanjelioa” entzunda piztu zitzaion Frantziskori “anaia predikariaren” argia (1208: 1C 22). Horrela aurkitu zuen, Eliza instituzionalaren barnean, bere berriazko zeregina: kristau pobre predikaria izango zen bera, Asisetik bertatik hasita.

Gertatutakoa ikusirik eta Frantziskoren pobretasun-deiari erantzunez, laster inguratu zitzaizkion lehenengo lagunak: horrela suertatu zen, bada, lagunarte batean (1208). Artean, ez zegoen Erregelarik, Ebanjelioaren intuizioa eta bizimolde berri bat baizik.

Ondoko pausoak ezarian-ezarian etorri ziren, bizitzaren isurian: “Ebanjeliozko biziera” (*forma vivendi*) berriaren ahozko onarpena (Erroman, agian 1209ko abenduan), Asisko prediku berriak eta Gotzainaren oniritzia, Klara Favaronen etorrera (1212), Anaiartearen erruz ugaltzea (gogora Vitry-ren 1216ko azalpenak). Hau da: jatorrizko intuizioa Erakunde bihurtzea, azken buruan.

1216tik aurrera une jakingarri batzuk aipatu beharra dago: 1217ko Kapitulu Nagusia, fraideak lehenengo aldiz Italiatik kanpo ere hedatu zituen; 1218an, fraideen katolikotasuna berresten duen Honorio III.aren bulda; 1219ko Kapituluak, modu berri batez fraideak Europa osora barreiatuko zituen, eta Frantziskoren Egiptorako bidaiak.

Handik itzultzean, uste ez zituen arazoekin aurkitu zen hau: Anaiartearen gobernuan utzitako arduradunek ez zuten asmatu beren zereginean, eta elkarte aztoratuta aurkitu zuen, barauak zirela, legendar-dunen elkarte asmatu berri bat, etab.

Jada ehunka eta milaka ziren Anaiartearen, eta Anaiarteak behar zuen agintaritzaren egitekoa izango zen Frantziskorentzat buruhauste berria: Erregela baten premia, alde batetik, eta berak Nagusi jarraitu behar zuen ala ez, bestetik. Erabaki larriak hartu beharrean gertatu zen artean apenas Fundatzaile zena: Ordenako Buru juridiko izan gabe, eredu gidaria izatea erabaki zuen (Pietro Cattani-ri utzi zion Nagusitza, 1220; eta, hau hiltzean, Elias Anaiari, 1221).

Bien bitartean, gustatu ez zen Erregela ebanjeliotar libre bat proposatu zuen: Anaiartearen askok ez zuten Erregela hori ongi ikusi eta Erromak ere ez zuten onartu (*Erregela buldatugabea*, 1221). Izan ere, milaka lagunaren gobernu ahalbideratuko zuten *arau idatziak* nahi zituen fraide anitzek, eta Eliza ofizialak, baina jatorrizko Anaiarte frantziskotarra *eredugarritasun pertsonalaren* gain eraikirik sortutakoa zen. Ikusmolde eta esperientzia kontrajarriak, beraz, Frantziskorena eta hainbat Anaia etorri berrirena. Hortik piztu zen Frantziskoren azken urteetako drama (Manselli 1997: 228-229).

Bigarren ahalegina egin eta, azkenik, eman zitzaion Erregelari jite juridikoagoa, eta honek bai izan zuen onespina, Anaiartetik eta Erromatik: *Erregela buldatua* (1223), Honorio III.ak onartutakoa. Handik aitzina, santutasun pertsonala asebetetzea izango da Frantziskoren xede kasik bakarra, eta, horrela, Anaiantzako eredu ebanjeliotar ulergarri eta imitagarria sortzea. Badirudi une mistiko jasoenak urte hauetakoak dituela (gogora La Verna mendiko estigmak, 1224). Hurrengo urtean idatzi zuen *Sorkarien Kanta*.

Bakarleketan otoitzean, gaixorik oinazetan egingo ditu ondoko hilabeteak. Heriotza hurbil sumatzean, Asisko Portziunkula maitera inguratu zen, hogeitau urte lehenago zaharberritu zuen Ermitaxora.

1226ko urriaren 3an hil zen, larunbatez. Bi urte geroago jaso zuen aldareetara bere adiskide eta babesle Gregorio IX.ak, Hugolino Kardinal ohiak.

## 1.2. LEHENENGO EMAKUMEA: KLARA

Frantziskoren ondoan eta emakume gazte baten ekimenez jaio zen *emakumezkoen proiektu frantziskotarra* ere, lehenengo Klara, eta gero Ines, inguratu zitzaizkionean. Ez zen batere erraza gertatu horri eustea, eliz erakundea oso baitzegoen ohituta proposatzen zuten bestelako bideetatik (Agustin edo Benitoren Erregelekin): nahi zuten pobretasun-utopia ez zen samurra Komentuko erakundetzapen itxi batekin uztartzeko.

Arlo honetan, pitzaturik gabeko zindotasun betekoa gertatu zen Klara Favarone, nahiz eta ia bere bizitza-erdia gaixorik pasa zuen, ohean. Agintari, Kardinal eta Aita Santuak San Damiango Monasteriora etorri zitzaizkion, elkarriketa eta eztabaidara, Gregorio IX.a 1228an bezala (30 urteko emakumea zen Klara une hartan, Aita Santuaren aurrean iritziak eman eta defendatzeko).

Frantzisko hil ostean (1226), ondoko mende-laurdena haren ondare izpirituala zaintzen ahalegindu zen Klara, gogotik, Neba fraideen Anaiartearen bestelako bidetara ere saihestu zitekeela ikusita (jada ageri ziren frantziskotartasunaren geroko gatazken oinarriak). Bere alaba mojen alde, Honorio III.ak emandako *privilegium paupertatis* hura (1216) izan zuen Klarak ezkutu babesle segurua, baita Gregorio IX.ak iritzi aldazki nahi izan zuenean ere. Geroago ere, beste Aita Santuen proposamenen aurrean, tinko eutsi zien bere eta Frantziskoren xedeei (1247), eta hil baino ordu gutxi lehenago lortu zuen, bere berriazko Erregelaren jatorria izango zena Inozentzio IV.ak onartzea (1253). Egia da, garaipen pirrotarra izan zela hura, baina bere aldetik jar zezakeen dena jarri zuen Klarak.

Halaber, edo gogoz, Elizak 1263tik aitzina klaratarren gehienbat Urbano IV.aren Erregelaren bidetik eramango zituen, gure egunak arte. Baina hazia ereinda utzi zuen, eta hurrengo mendeetan sekulako baso zabala bilakatu zen "Santa Klararen Ordena" horrela orduantxe deitua (1263).

## 2. EUSKAL HERRIKO HISTORIAREN EPEKAPENA

Esan bezala, Frantzisko eta Klararen seme-alabak, gehiegi luzatu gabe etorri ziren Euskal Herrira ere, baina horretaz ezer esaten hasi aurretik eta hemengo historia bere erritmoan begiratzeko epekapen kronologiko egokitu bat aurkeztu nahi diot irakurleari, argigarri izango delakoan, zortzi mende luze baitira kasik historia honetakoak.

Horretarako Aro komentzialak hartuko ditugu, baina beren mugetan gure eremu honetara zer bait moldatuta:

ERDI AROA 1220-1567.etan ezarriko genuke, ikusiko ditugun arrazoiengatik. Aroaren azken mugaldea, hiru dataren inguruan emango litzateke: Kantabria Probintziaren sortzea (1551), Trento-ko Kontzilioa (1545-1563) eta Komentuarren desagertzea (1567). Muga hori jarrita, Erdi Aro hau bi aldi handitan bana daiteke:

- 1220-1422: 1422an, hau da, Euskal Herrian Obserbantziako lehen Komentua irekitzean (Izarro) emango dugu bi aldien tarteko muga.
- 1422-1567: Komertutartasunaren beheraldien eta Obserbantziaren goraldi-garaipeneko hamar kadak dira.

ARO MODERNOA, oster, 1567-1791/94. etako urteetan ezar dezakegu. 1567ko gertakariak eta Frantziako Iraultzaren Euskal Herriko presentziak jarriko lituzkete Aro Modernoaren bi mugak.

- 1567-1679: Obserbanteen Euskal Herriko azken Komentu berriak (Gipuzkoa bereziki), gobernu-barrutien finkatzea (Nafarroa frantziskotartarren<sup>ofm</sup> arazo: 1567, 1602), errekoletoen sarrera (1611) eta kaputxinoen Nafarroa-Kantabriako Probintziaren eratzea (1679: 9 Komentu) dira aldi honetako ekarpen bereziak.
- 1679-1791: Beste Komentu gutxi batzuekin, Euskal Herrian Esklaustroziorainoko erakundegorputza osatuta izango da, eta XVIII.eko bigarren partean iritsi zen historiako pertsonal-loraldi estatistikorik jasoena.
- 1791/94: Iraultzako lehen gerra eta esklaustrazioekin urte hauetan itxi zen Aro Modernoa, garai berriei bide emanez.

ARO GARAİKIDEA, 1791-2000. urteetan. Komentuen itxierarekin eta data ezberdinetako (Iparralde/Hegoaldea) izanberritzearekin irekiko litzateke Aroa, gure egunak arte luzatzeko. Hiru aldi ongi kontrajarriak ditugu hemen:

- 1791-1840: Mende-erdi bateko krisialdia da, gerra eta esklaustrazioek osatua.
  - 1791/1851, 1840/1859: Esklaustrazio orokorren urteak.
  - 1851/1859-1970: Izanberrikuntza handia, bere une txarrak ere tartekatuta dituela (1880, 1903; 1870, 1936); Hegoaldean, lehen garaipena (1876-1936), loraldia (1940-1965).
  - 1966-2000: Beheraldi demografikoaren aldia: erlijiosoen zahartze-urritzeak.
- (Xehetasun gehiago beharago emango dugu).

Frantziskotarren historia honetan, Aro bakoitzak bere ezaugarriak ditu, geroago ikusiko ditugunak; baina badago esanda utzi nahiko nukeen beste zer bait, Familia honen Euskal Herriko garaipenean arau kronologiko-instituzional finkoa den



hau: *mende bizbat*, *Euskal Herriko frantziskotarren Familian Erreforma edo Izanberrikuntza-*ren bat** nagusitu izan da. Begira nola ageri zaigun hori:

- XIII.ean, lehen Leku eta Etxeak ireki ziren, mugimendu berriaren lehen belaunaldian bertan: Nafarroa-Araba-Lapurdi izan ziren horren lekuko, fraide eta mojetan.
- XV.ean, Obserbantziako erreforma etorri zen Gaztelatik, lehenengo berariazko Etxe berriak irekiz, eta geroago, lehendik zeuden komentutarrak bereganatuz, fraide komentutarrak guztiz desagertzera. Bizkai-Gipuzkoa izan ziren horretan aitzindari, eta Nafarroa izan zen aldakuntza horretan azkena.
- XVII.ean, Kaputxinoen erreformaren ordua da, eta berauek izango dira, orduan eta gero, Euskal Herriko geografia frantziskotarra osatu ez ezik bere eskualde ahulduetan indarberrituko dutenak, Obserbantzia indargabetua (XVII-XVIII.etan) edo Izanberrikuntza frantziskotar<sup>ofm</sup> eskasagoa (XIX-XX.etan: batez ere Nafarroan) beren indarrek lagunduz. Gogora garai honetan, Kantabriako 5 Etxe errekoleta ere: Donostia (1606), Zarautz (1610), Argantzun (1615), Lekeitio (1617-1650) eta, azkena, Gasteizko Sorkundea (1648).
- XIX.ean, Frantziako Iraultzaren ostean eta Espainian Liberalismoak ezarritako Esklaustrazioaren ondoren, antzinako egoera izanberritu nahi izan zuten fraideek, lehengo Ordenen sozio-geografia birlandatu, alde batetik, eta Kongregazio berriak sartuz, bestetik.

Iragan horretan, euskal Herrialdeak modu ezberdinean ageri zaizkigu, une bakoitzean eta euskal lurralde osoan. XIII.ean Nafarroa izan zen aitzindari, Araba eta Lapurdirekin batera; Bizkaia eta Gipuzkoa, artean, urrun zeuden Eskeko Ordenen historiari. Azken bi Herrialde hauetako frantziskotartasuna ia osorik (Bermeo da gogoan hartu behar den salbuespen bakarra) Obserbantziaren eskutik eta menpe egon zen, XV.etik hasita; horren aurreko historia Nafarroa-Araba-Lapurdietan burutu zen, eta komentutartasunean lekutu behar da.

### 3. EUSKAL HERRIKO ERDI AROA (c. 1220-1567)

Frantziskotarrak, beren historian, oso garaiz iritsi ziren Euskal Herrira, esan bezala segur aski Santiago-Bideari jarraikiz. Agiri zehatz frogagarriarik ez dugun arren, San Frantziskoren urteetan iritsi zirela uste daiteke, garaiko fraideen ibilera-moduak

ezagututa eta klaratarren berehalako agiriak gogoran hartuta (1228ko urtea da lehen agirizatua, ikusiko dugunez).

#### 3.1. FAMILIA FRANTZISKOTARREKO ESTADISTIKA OROKOR ZENBAIT

Ordena osoko estatistikek erakusten digutenez, 1.583 Etxe zituen fraideen Ordenak 1282an; hori izan zen 70ren bat urteko hazkuntza (Golubovich 1908: 19). Klaratarren Monasterioak ere ugartuz joan ziren, nahiko bizkor, gainera: 24 ziren 1228an, eta 80ren bat Santa Klara hil zenean, eta gure inguruetan erruz sortu ziren halakoak, Akitanian, adibidez, 18 lehen mende hartan, eta 76taraino Iraultza aurretik (Omaechevarria 1972: 44, 46, 69).

Honaino iritsi zitzaigun erlijioso-talde berria XIII. mendeko Europar uholdea zela esan daiteke, eta Erresuma batzuk bete-betean harrapatu zituen berorrek. Frantziako Eskeko Ordenen Etxe-estatistiketan ikusten da hori (1550a artekoak dira datuak) (Emery 1962: 3, 7):

#### XIII. MENDETIK 1550A ARTE FRANTZIAN SORTUTAKO ESKEKOEN ETXEAK

<i>Eskeko 12 Ordenen etxeak (1550a arte):</i>	%100	882
1. Frantziskotarrak	%42	367
2. Domingotarrak	%16	148
3. Agustindarrak	%12	102
4. Karmeldarrak	%11	99

1550a arteko Frantziako frantziskotarren 367 Etxe horietako 195 (%53) 1275aren aurretik eraiki zen, eta azken data goiztar hau arte Eskeko Ordena guztiek Frantzia irekitako (423) Etxeetik %46 zen frantziskotarra (195 Etxe, alegia). Garaiko mugimendu frantziskotarraren neurria adierazten digu horrek (1275).

#### 3.2. EUSKAL HERRIKO ALBISTEAK

Lehen belaunaldi haietan, Euskal Herria ez zen kopuruz lurralde bizkorra izan, baina bai goiztarra; esanahitsua da Iruñeko klaratarren kasua, zeren berauek izan baitziren, frogatuta dagoenez, Eliza osoan Italiatik kanpo sortutako klaratarren lehenengo Monasterioa (Santa Engraziakoa, a. 1228; gaur egun egoitza XIX. mendearen lehen urteetatik Erriberri/Oliten duen Ahizpartea).

Euskal Herriko moja edo fraideen pertsonal-estatistikarik ez dugu eskueran, baina ikus dezakegu hemen, Erdi Aro hark zer eman zuen gure arteko Komentu-Etxetan (geuk landutako laukia):

HERRIALDEZ, EUSKAL HERRIKO  
FRAIDE-KOMENTU FRANTZISKOTARRAK (1282-1567)

<i>Herrialdeak</i>	1282	1390	1500	1567
Nafarroa	5	5	7	7
Araba	1	3	3	3
Iparraldea	1	1	1	1
Bizkaia	0	2	5	5
Gipuzkoa	0	0	0	3
<i>Orotara</i>	7	8	16	19

**Fraideen komentuak:** 1282: Iruñea (c. 1220), Gasteiz (a. 1236), Baiona (1242), Olite (a. 1243), Zangoza (1250), Lizarra (1265), Tuteria (1266).— 1385/90: Aurrekoak eta Bermeo (1357).— 1500: Aurrekoak eta Izaro (1422), Aras-Soto (1440), Bilbo-Santimamine (1446), Kanpezu-Piedrola (1447), Bastida (1447), Tafalla (1468), Urduña (1471), Bilbo-San Frantzisko (1475).— 1567: Aurrekoak eta Arantzazu (a. 1501), Deba-Sasiola (1503), Elgoibar (1516).—Ez daude, beraz, hor Rocaforte eta Ondarroa, nahiz Donostia-Antigua (1516-1539).


Emakumezkoetan ere egon zen garapen parekide bat, zenbatzen beti erraza ez dena, kontu izanik iturrietan ez dela beti argi ageri noiz hasi zen talde bakoitzaren erakundetzapen frantziskotar eta erlijioso; segun zer nahi den jakin, segidako gertakarien data ezberdinak har baitaitezke Ahizpartea bakoitzarentzat: talde eratua + hirugarren Ordenako taldea + HOKo talde erregeladuna + HOKo talde erregeladun botoduna + talde botodun klausuratua + (Hirugarren edo Bigarren Ordenakoa). Hemen, batez ere Uribe ematen dizkigun argibideekin jokatuz, hurbilketa bat egingo diogu Aro hartako emakumezkoen errealitateari (zehaztasun eta frogak hurrengo aukera baterako lagaz):

HERRIALDEZ, EUSKAL HERRIKO  
MOJA-KOMENTU FRANTZISKOTARRAK (1282-1567)


<i>Herrialdeak</i>	1282	1390	1500	1567
Nafarroa	3	3	3	3
Araba	1	1	1	3
Iparraldea	0	1	1	1
Bizkaia	0	2	6	9
Gipuzkoa	0	0	1	7
<i>Orotara</i>	4	7	12	23

**Emakumezkoen Komentuak:** 1282: Iruñea (1228), Gasteiz (a. 1247), Tuteria (1261), Lizarra (1262).— 1390: Aurrekoak eta Urduña (p. 1296), Baiona (1296), Begoña (p. 1366).— 1500: Aurrekoak eta Gernika (1422), Durango (1439), Gordexola (1450), Bilboko Sorkundea (1467), Azpeitia (1498).— 1567: Aurrekoak eta Oñati-Sta. Ana (1509), Arrasate (1511), Oñati-Bidaurreta (1511), Segura (1519), Elgoibar (1533), Portugalete (1550), Agurain (a. 1552), Dulantzi-Aletxa (a. 1552), Bilbo Sta. Krutz (1558), Areatza (1560), Bergara (1566). (Monteagudo, Goñik bakarrik aipatua, ez dugu sartu: GEN, s. v. Clarisas". Lergako San Gines ere izan zitekeen klaratarra, baina segurtasunik ez dugunez, ez dugu aintzakotzat hartu.

EHKO FRAIDE FRANTZISKOTARRAREN KOMENTUAK



EHKO MOJA FRANTZISKOTARRAREN KOMENTUAK




Bi laukietako datuak batzen baldin baditugu, fraide eta moja, ondoko batuketara izango genuke Erdi Aroko erlijioso frantziskotar guztientzat (1282-1567: segidako kopuruetan lehengoak eta berriak urte bakoitzean batera zenbatuta):

EUSKAL HERRIKO  
KOMENTU FRANTZISKOTARRAK (1282-1567)

<i>Urteak:</i>	1282	1390	1500	1567
Komentuak	11	15	28	42

Komentu edo Monasterio horiek euskal Elizako gainerako Institutu Erlijiosoen artean zein leku erlatibo izan zezaketen jakiteko ikuspegi orokor bat behar genuke, baina ez dut orain eskueran hori. Hala ere, adibide gisara, Isastik Gipuzkoarako zerbait gerotxoago idatzitakoa gogoraz daitezke hemen. 1625ean 37 Komentu erlijioso zeuden Gipuzkoan: Isastiren 33 (1 kaputxinoa), eta Oñatin ziurki beste hiru frantziskotar. Hori horrela, Gipuzkoako komentuetako 19 ziren frantziskotarrak (kaputxino bat hor barne: % 57).

FRAIDE ETA MOJA FRANTZISKOTARRREN (OFM) KOMENTUAK



Erdi Aro frantziskotar hau, Familiako bi Adar handiren obra izan zen: Klaustra edo Komentutarena eta Obserbantziarena:

Iparraldean eta Hegoaldeko barnealdean Klaus-trak ezarri zituen lehen Etxeak, eta ezaguna den berriazko bere bilakaera izan zuten.

Hegoaldean, Kostaldeko bi Herrialdeetan, berriz (nahiz eta Klaustra Bermeoraino iritsi), Obserbantzia izan zen lurralde berri hori irabazi zuena.

Dena den, azken buruan, Obserbantzia gertatu zen guztiaz jabetu zena, betidanik berea zuelako edo Klaus-trari zituenak irabazi edo kendu zizkiolako.

Fraide eta moja frantziskotarren mundu honetaz hainbat gauza dago esatekorik, noski, baina ez da unea luzatu-zabalduz ibiltzeko. Hurrengo baterako geratzen dira, beraz, historiako alderik mamitsuenak:

- Erregela, legeak, arauak.
- Espiritualitatea.
- Ohiko bizitza.
- Fraidegaien hezkuntza.
- Fraideartearren klase-eraketa.
- Ondarea eta ekonomia.
- Fraide edo moja leinargiak.
- Pastoral-lana.
- Gizarteko txertapen instituzionala.
- Harreman sozialak.
- Eskola eta kulturgintza.
- Eta abar luze bat.

Erdi Aroa amaitzean, mugimendu frantziskotarrak hartuta du Euskal Herrian garai berrietan ibiliko duen bidea: Jada euskal Herrialde guztietan dago presente, nahiz eta artean Gipuzkoako Komentu-sarea osatzeko duen.

Emakumezkoen Ahizparteak ugalpen azkarra erakutsi dute, zalantzarik gabe euskal gizartetik bertatik datorren enbata eta eskeari erantzunez.

Herri-botereek eta Koroak ere lagundu duten Obserbantzia nagusitu da osorik gure arteko Komentuetan.

Euskal Hegoaldeko frantziskotarren barrutiak berrantolatu berri dira, Aro Moderno osorako: batez ere, *Kantabria* deituriko Probintzia sortu da (1551).

Trentoko erreformen korrontean sarturik da euskal frantziskotartasuna, eta Hegoaldean bezala Iparraldean aukera berriak ez ditu galduko: Arantzazun, Ziburun, Komentu berrietan, lekaikeen erreforma egitean.

#### 4. EUSKAL HERRIKO ARO MODERNOA (1567-1840)

Aro Moderno honetan sartu eta laster, Gonzaga Ministro Jeneral izanak eman zigun Euskal Herriko Komentu, Anaiarte eta Ahizparte berri, banan-banan (1587). Nafarroa eta Iparraldea, oso lehengo egoeran ikusten ditugun arren (eta halatsu Araba ere), Gipuzkoa-Bizkaia indar betean ageri dira, ekimen berrietarako prest. Ondoko hiru mendeek ongi erakutsi zuten hori.

##### 4.1. AZKENIK, KOMENTU-SAREA OSATUTA

1585eko datuen arabera, Euskal Herrian irekita zeuden 20 fraide-komentuetan (goiko laukiari Arrasatekoa gehitu zitzaion, 1582an) batez beste Etxe bakoitzeko 23 lagun pasatxo ziren. Oraindik ere komentuetan berrien garaia izango da Obserbantziako *Kantabria* Probintzian: Tolosa (1587), Donostia (1606), Zarautz (1610), Argantzun (1615), Lekeitio (bizialdi mugatua: 1617-1650) eta Gasteiz-Sorkundea (1648). Zerrenda horri egoitza zaharretatik berrira eramandako Anaiarte biak gehitu behar zaizkie: Biana (Aras-Sototik: 1634) eta Forua (Izarotik: 1719). Erdi Arokoek berean segi zuten bitartean, beste berri hauek gehitu zitzaizkien, bada: berriak zenbatuz 25 Anaiarte ziren, hortaz, Euskal Herriko Komentuetan, 1648tik aurrera.

Guztioi, azkenik, berritasun jakingarri bat erantsi zitzaion: Errekoletoen Ordenako Ziburuko etxea (1611), eta, noski, ondoko hitzaldian aipatuko diren kaputxinoen guztiak (T. Azcona). Fraide-Etxeen mendez mendeko garapena eta azken buruko egoera ondoko errenkada honetara etorri zen (urte-une bakoitzari dagokiona aurreko urte guztietatik datozen guztiekin osatzen da, noski):

**Fraideen komentuek: 1282:** Iruñea (c. 1220), Gasteiz (a. 1236), Baiona (1242), Olite (a. 1243), Zangoza (1250), Lizarra (1265), Tuteria (1266).— **1385/90:** Aurrekoak eta Bermeo (1357).— **1500:** Aurrekoak eta Izaro (1422), Aras-Soto (1440), Bilbo-

Santimamine (1446), Kanpezu-Piedrola (1447), Bastida (1447), Tafalla (1468), Urduña (1471), Bilbo-San Frantzisko (1475).—**1567**: Aurrekoak eta Arantzazu (*a.* 1501), Deba-Sasiola (1503), Elgoibar (1516).—Ez daude, beraz, hor Rocaforte eta Ondarroa, nahiz Donostia-Antigua (1516-1539).—**1648...:** Arrasate (1582), Tolosa (1587), Donostia (1606), Zarautz (1610), Ziburu (1611), Argantzun (1615) eta Gasteiz-Sorkundea (1648).—Lekeitio (1617-1650) eta bakarrik lekualdatuak (Biana eta Forua) ez ditugu zenbatzen, baina Ziburuko errekoletoa bai.

Lekaima frantziskotarrek ere gora egin zuten, lehendik zetozen Etxei eutsiz eta Trentoko arauetara jarritz, alde batetik, eta berriak eratuz, bestetik. Hauen artean gogoratzekoak dira: Azkoitia (1607), Eibar (1634), Balmaseda (1666), Lerin/Urantzia (1678, 1864), Lizarra-Sorkundea (1731), Tafalla-Sorkundea (1669) eta Arizkun (1737). Hauek ere, noski, aurrekoei gehitu zitzaizkien, lehendik eraikitakoak ez baitziren ixten, jeneralean. Eta azken egoera zerrenda honek ematen digu:

**Emakumezkoen Komentuak: 1282:** Iruñea (1228), Gasteiz (*a.* 1247), Tuteria (1261), Lizarra (1262).— **1390:** Aurrekoak eta Urduña (*p.* 1296), Baiona (1296), Begoña (*p.* 1366).— **1500:** Gernika (1422), Durango (1439), Gordexola (1450), Bilboko Sorkundea (1467, Azpeitia (1498).— **1567:** Oñati-Sta. Ana (1509), Arrasate (1511), Oñati-Bidaurreta (1511), Segura (1519), Elgoibar (1533), Portugalete (1550), Agurain (*a.* 1552), Dulantzi-Aletxa (*a.* 1552), Bilbo Sta. Krutz (1558), Areatza (*a.* 1560), Bergara (1566). (Monteagudo eta Lerga ez ditugu sartu). **1737:** Aurrekoak eta Azkoitia (1607), Eibar (1634), Balmaseda (1666), Lerin/Urantzia (1678), Lizarra-Sorkundea (1731), Tafalla-Sorkundea (1669) eta Arizkun (1737).

Etxeen sortzeak berea egin zuelarik, 1737an 55 Komentu izan ziren: 25 fraideenak eta 30 lekaimenenak. Datu osagarri bezala, galdetzekoa da Etxe haietan zenbat erlijioso zeuden ere.

#### 4.2. FRAIDE-MOJEN KOPURUA

Komentua zen fraide eta mojen bizileku arrunta, inoiz bestelakorik ere egon arren (eremitorioak, kapilau-etxeak, ospizioak, etab.), baina Komentu haiek ez ziren denak berdinak, ezta tamaina berekoak ere; batzuk hirietan zeuden, eta hiriko bizitzara irekiak; besteak, ostera, Etxe "bilduak" ziren, eta inguru sozialarekin harreman mugatuagoak ziztuztenak, edo oitizera erabat emanak.

Zituzten Anaiarteak fraide-kopuru oso ezberdinekoak ziren, Anaiarte erraldioen ondoan (Gasteiz, Bilbo, Arantzazu), ertainak zeuden (Bastida, Tolo-

sa, etab.) edo txikiak (Forua, Arrasate, etab.). Senitarte haietako estatistika batzuk bederen baditugu Aro Modernorako, eta lehen eta azken mendekoak ekarriko ditugu hona:

- 1585ean, 463 ziren Euskal Herriko fraideak, eta mojak, 468: orotara, bada: 931 frantziskotar (Gonzaga 1587).
- bi mende geroago (kaputxinoak ere aintzakotzat hartuta) hain gora egin zuen horrek, zeren eta 944 fraide eta 608 moja baitzeuden (Godoy 1797; Iparraldekoa 1791).
- Orotara, 1.552 erlijioso izatera iritsi zen Familia frantziskotarra Euskal Herri osoan.

Ondoko lauki honetan ikus daiteke fraide-moja haiek denak nola zeuden banatuta euskal Herrialde ezberdinetan (Iparraldea: 1791; Censo de Godoy: 1797):

#### ORDENA GUZTIETAKO EHKO

FRAIDE ETA MOJA FRANTZISKOTARRAK (1791,1797)

<i>Herrialdeak</i>	<i>Fraideak</i>	<i>Mojak</i>	<i>Orotara</i>
Araba	168	62	230
Bizkaia	175	164	339
Gipuzkoa	150	180	330
Nafarroa	406	202	608
Iparraldea*	45	12	57
<i>Guztiak</i>	944	608	1.552

\*Urtea,1791. Mauleko kaputxinoen zifrarik ez dugu eskuratu.

Ikusten denez, Nafarroak pisu handia du (kaputxinoak barne direlako, noski), eta Hegoaldeko beste Herrialdeek banaketa aski orekatua erakusten digute; Iparraldea, kopuru absolutuan motzago ageri da. Erlijioso-talde hau garai berri errebolatuei aurre egin beharrean aurkitu zen bat-batean, Aro Garaikideko lehen hamarkadetan modu batera, eta geroago ere, beste gisa batean.

Eta erlijiosoen gizarte horrek zein antolaera zuen? Komeniko da horretaz zerbait esatea.

#### 4.3. FRAIDEEN ANAIARTEKO ERAKETA

Komentuan denak ziren Anaiak, baina ez ziren denak senide berdinak: "klaseak" zeuden (legeen terminologia bera erabiliz esateko): Anaiak Apaizak eta Anaiak Laikoak (lekaimetan, "belo zuri" eta "belo beltzekoak" izango dira). Bi taldeen artean, marra garbi bat zegoen. Hori, fraidegaiaren sarreratik bertatik erabakita egon ohi zen, eta, harez gero, batzuei zein besteei eskainiko zitzaizkien gora-aukerak ere ez ziren berdinak izango.

Anaiak Apaizen artean ere, ez zeuden denak egoera berdinean: Apaiz soilak, Apaiz aitor-entzuleak



eta Apaiz predikariak zeuden. Izaera batetik bestera igotzeko gaitasunak frogatu egin behar ziren, merituak egin eta *curriculum* arautuak eskatzen zuena bete (ikasketak, azterketak, urtetako jarduerak, etab.).

Apaiz soilak Meza eman zezakeen, eta horrekin batera Sakristia edo Atezaintza eraman, elizkizunak prestatu eta zainduz, eta jendearekiko harreman arruntak eramanez. Gehienetan, ikasketa laburrekoa zen halakoa.

Predikarien artean 1. eta 2. mailakoak zeuden, eta Komentu bakoitzak izan ohi zituen izendatuta bereak (lehenengoa eta bigarrena); eta horretan ez ziren Komentu guztietako pulpituak bikaintasun berekoak: lehenengo eta bigarren mailako pulpituak zeuden.

Fraide apaizen artean mailarik altuena Irakasleena zen, eta hauen artean, Irakaskuntzan hainbana urtetan jardundako Irakasle Jubilatuenak. *Curriculum* hori erabakigarria izan zitekeen, gainera, Komentuetan nahiz Probintzian aginte-erantzukizunak hartu ahal izateko, edo berorietarako hautatua izateko.

Gizarte-antolaera hau "aurrekotasun" edo "*precedencia*" delakoan ispiatzen zen: fraide bakoitzak bere berariazko lekua zuen gainerakoen artean (jantokian, koruan, prozesioetan, etab.). Urrunegi joan gabe, esan daiteke kasik meritokrazia hierarkiatua zela Anaiarteko antolaera hura.

Neurri batean, Aro Modernoko eraketa hura XIX.eko Izanberrikuntza ondoren ere ezagutu ahal izan da, askoz ere malgutasun handiagoarekin izan arren. Vatikanoko II.aren ondoko enbatak eraman ditu elkar-bizitzako muga eta aurrekotasun haiek.

Komentuko ofizio edo betekizunek duintasunik eman ziezaioketen Anaiari, apaiza nahiz laikoa izan. Horrelako ofizioen artean zeuden apaizentzat atezainarena edo sakristauarena, eta Anaia Laikoentzat baratzeainena eta sukaldariarena, adibidez.

Bestalde, Anaien arteko hierarkiarekin batera Probintzian bazegoen Komentuen arteko mailaketarik ere (betiere Kantabria deituriko Probintziaz ari gara). Ikus dezagun.

#### 4.4. FRAIDEN KOMENTU-MOTAK

Probintzia erlijiosoko Komentuak ez dira ikusi behar denak berdinak balira bezala; alderantziz, guztien arteko ezaugarriak ez ziren berak -beren barneko izaeran eta inguruarekiko harremanetan- eta Probintziako Arautegiak ere bereizi egiten zituen, bizimoldez eta hierarkiaz. Probintzian oroko-

rreko Komentuak zeuden (Arruntak nahiz Nagusiak), eta salbuespen gisako Komentu Errekoletuak zeuden gero.

##### 4.4.1. Komentu errekoletuak

Aro Modernoan, eta gainerako Komentuetatik bereizita baina Probintziako gobernu-barruti berean, ontzat eman eta arautuz joan ziren "Errekoletio-Komentuak", batzutan horrelakoxeak izateko sortutakoak eta, bestetan, Probintziak berak molde horretara eramanez. Aipatzen ditugun Hegoaldeko Komentu Errekoletu hauek Obserbantzia ziren, Kantabriako Probintzia osoa bezala eta Ministro Probintzialaren menpe zeuden gainerako Komentuak bezala. Alde horretatik, ez zuten inolako beregintasun bereizirik.

Hala ere, bere barne bizitzan eta janzkeran bazi-tuzten ezaugarri batzuk: biziera latz eta hertsia zuten, eta Komentuko barne-biziera berariazko arautegiz moldatua. Aro Modernoan zehar, hainbat Estatutu onartu izan zen Ordenan Etxe hauetarako eta Kantabriak ere bazuen berariazko Arautegia (Uribe 1996: 174-175, 179, 181). Komentu-mota honek Ordenaren barruan beti bizirik egondako eremitismoarako joerari ere erantzun nahi zion, nahiz eta ez ziren hauek juxtu eremitorioak.

Honelako Komentuen artean jarri behar dira "nazio" bakoitzak zuena: San Mames, Sasiola, Gasteizko Sorkundea; baina besterik ere izan zen, lehenago edo gero: Donostia, Zarautz, Argantzun edo Forua.

Probintzia barruko Komentu Errekoletu hauen ondoan, ordea, egon zen Euskal Iparraldean Familia frantziskotarreko Adar Errekoletu bat ere, bertako Obserbatzietatik juridikoki berezia, zinez Institutu Erlijioso beregaina bilakatu zena. Komentu bakar bat izan zuen Ordena honek, baina euskalgintzan hartu zuen leku seinatuagatik ere aipatzekoa da: Donibane-Ziburuko Errekoletu Komentuaz ari naiz (1611). Gaur egun ere zutik dago Komentu hori Donibane-Lohizuneko portuan, nahiz eta Iraultzaz geroztik fraiderik ez duen. Nolabait esateko, badirudi Donibane-Sarako axularren Teologi Eskola izan zela berau, hain zuzen Axular-en babesle handi izandako Etxaus Gotzainaren eskutik sortu baitzen Etxe hori eta bertan bildu izan ziren taldekoak.

##### 4.4.2. Komentu arruntak eta nagusiak

Dena den Komentu Errekoletuak gutxienak ziren Euskal Herrian, eta Obserbantzia ohizko Komentuek osatzen zuten batez ere Probintzia Erlijiosoa, Hiru Probintzietan bezala Nafarroan. Hauek gero eta gehiago lerratu ziren betidaniko ko-

mentutartasunerantz, ondasunak bilduz, eraikin handiak jaso eta hobetuz, euskal gizartean protagonismo handia berenganatuz, Hiriburuetan batik bat. Horrek ez du esan nahi, ordea, hauek ere denak berdinak zirenik. Bakoitzaren lekumenduak edo maila juridikoak agintzen zuten horretan.

Bazeuden batzuek herrietatik urrun zeudenak, bakarleketan alegia (Arantzazu, Izaro, San Mames, Bastida, Sasiola, Donostia, Kanpezuko Piedrola), eta beste zenbait herrien ondo-ondoan (Gasteiz, Bermeo, Tolosa, Zarautz,) edo herri nahiz hiri barnean (Baiona, Iruñea). Herri edo hiriarri eskaini ziezakizketen eguneroko edo ohizko zerbitzuek sortzen zuten Etxe hauetako bakoitzaren soslaiak pastoral eta profesionala; baina, barneagotik ere, bereizten ziren beren artean: batzuek “Komentu Arruntak” ziren, besteak, ostera, “Komentu Nagusiak” (*Convento Mayor*).

Komentu Nagusiak deituek, normalean, Fraidearte handiagoa izan ohi zuten, fraide gazteentzat Ikastegia eta Nobiziategia. Berauetako ofiziodunei (predikariei, adibidez) eta agintariei, horrelakoetan arduradun izateagatik, meritu jasoagoak aitortzen zitzaizkien. “Nazio” bakoitzak zuen bere Komentu Nagusia: horietakoak ziren Iruñea, Gasteiz, Baiona eta Bilkoko San Frantziskoak Nafarroa, Araba eta Iparraldean, eta Arantzazu zen Gipuzkoan. Oho-reak eta “aurrekotasunak” zituzten honelako Komentuek Probintziako bileretan. Ez da harriztekoa ere: ez zen berdin dozena bat laguneko Komentuaren egoitza izan, edo 80 nahiz 100 laguneko Fraidearteak bildu.

Azkenik gogoraraz dezagun Komentuek eliza eta komentuetara edo baratzea ez ezik, lurralde-barruti bat izan ohi zutela izendatuta, bertan Goardianoari zegozkion eskubide juridikoak erabiltzeko (Hirugarren Ordena, etab.) eta eremu horretan egiteko eskeak egin ahal izateko. Bere alde juridiko eta ekonomikoa behintzat bazituen komentuetan, Probintziako lurraldetasunaren barnean.

#### 4. 5. FRAIDEN LURRALDE- ETA BOTERE-ERAKETA

Euskal Herriko frantziskotarrek<sup>ofm</sup> 1602an lortu zuten finkatzea Esklaustrazioa arteko lurralde-barrutia. Honela geratu ziren banatuta euskal Herrialdeak:

- NAFARROA, Burgosko Probintzian sartu zuten (1602an, Erreinu osoa).
- HIRU PROBINTZIAK Kantabriako Probintzian bildu ziren (1551), Santander, eta Burgosko zenbait Komenturekin (Poza, Frías, Miranda).
- IPARRALDEA: “Akitania Zaharra” deituriko Probin-

tzia lekutu zen Baionako Komentua, eta Ziburukoa, berriz, errekoletoen Guaianako Sortzez Garbiarenean.

Bizpahiru albiste jakingarri aipatu behar dira hemen, Probintzia Erljioso hauen lurraldetasuna nola moldatu zen begiratzean.

1) Kantabriako Probintzia Erljiosoaren barruan, Euskal Herrikoak izan ziren Komenturik gehienak: 27 Komentuetatik, 17 ziren euskal herritarrak.

2) Probintzia horretako Komentuak eta berauen barrutiak “naziotan” banatuta zeuden: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Mendialdea (*Montaña*). Banaketa honek garrantzia zuen, herrialde bakoitzak bere autonomia modu bat zuelako (fraidegaiak hartzean, adibidez) eta Probintziako agintaritza banatzean elkarren arteko oreka zaintzeko balio izan zuelako.

3) Ohartzekoa da praktikan Miranda de Ebroko San Frantzisko, Arabako “naziokoa” zela, eta Frías eta Poza, ostera, Bizkaikoak (Homenaje 16; Uribe 1996: 286).

Antolaera hau ez zen bat-batean sortutako zer-bait; aitzitik, gobernu-esperientzia luzeak erakutsitako eraketa baizik. “Akordio Laukoitza” zeritzan hitzarmenak arautu zuen hau dena, 1616an sortu onartu eta, azkenik, gero 1719an *Estatutos Municipales*-ean jaso zenak.

Akordio Laukoitzak lau “nazioen” arteko oreka eta harmonia ona bilatzen zuen, eta batez ere ongi zaindu nahi zuen lauren arteko kargu-txandaketa. Probintziala txandaka aukeratu behar zen lauretatik, eta nazio bakoitzak bere definidorea izango zuen beti; etxeetako Nagusiak, ordea, nonahikoak izan zitezkeen, Ikastegietako ikasle-irakasleak bezala. Dena den, bakoitzaren jatorrizko naziotasuna gordetzeko, norberari sortzez zegokion lurralde-naziokoa izan behar zuen fraidegaiak, arruntki. 1700ean nazio bakoitzari izendatu zitzaion erlijioso-kopurua zera zen: Gipuzkoari 193, Bizkaiari 180, Arabari 167, Kantabriako “Mendialdeari” 202. (Uribe 1996: 394-412).

Ikusten da, ba, aurreko hamarkadetan bizi izandako eskarmentu txarrak (Burgosko Probintziaren banaketa) eta Probintziako barneko gatazkek “paktismo” juridiko batera eramane zutela guztiaren gobernu-diseinua. Premiazkoa zen hori, nonbait, elkarrekin bizi eta elkarrekin lanean jarduteko.

#### 4.6. MOJA FRANTZISKOTARREN ANTOLAERA

Moja frantziskotarren Monasterio-sarea (jada, 1620 ingurutik aurrera klausura hertsia zutenena) Fraideen Probintzia ezberdinetan lekututa zegoen, eta zegokion Aita Ministro Probintziala zen guztien

buru, ez tokiko gotzaina (Kantabriako Probintzian Balmasedako klaratarrena izan zen bakarrik zuzenean gotzainaren mendekoa). Monasterio-talde haien botere-erpinan, bada, aipatutako Fraideen Nagusi bera zen.

Hala ere, Monasterio bakoitza guztiz beregaina zen, eta gainerako moja-komentuekin ez zuen elkartasun probintziala edo izan zitekeenik osatzen: denak berdinki ziren beregain eta autonomoak, eguneroko bizitza gobernatzeko, ez-ohiko obra eta bestelakoak egiteko... Monasterio bakoitzak bere ekonomia, mojegaiak hartu eta hezitzeko eskubidea, Monasterioko Abadesa hautatzeko eskumena, inguruarekiko harreman sozio-ekonomiko eta erlijiosoak eratzeko modua, etab., betiere Aita Probintzialaren gain-begiradapean.

Klausura ezartzeko garaietan ongi ikusi zen bezala, mojek ez zuten nolana (eta beti, beste gabe esaneko) onartzen kanpotik eskatzen edo agintzen zitzaiena, ezta agindua Aita Probintzialarengandik zetorrenean ere.

Ez dago, bada, moja-komentuen probintzia bereizirik, Monasterio solte eta beregainak baizik, eliz antolaera-egituran Fraideen Probintziarekin harreman hertsian zeudenak, Probintzia horrek eskaintzen baitzien hainbat zerbitzu ere: kapilauak, batez ere, aitor-entzuleak, predikariak, etab. Ministro Probintzialak legez zegozkion aldian aldiko Bisitaldi ofizialak ere egiten zituen, baina, indarrean zeuden eliz legeen barruan, Monasterioa libre zen bere barne- eta kanpo-bizitza zerizkion molderik onenean egiteko.

Honela bizi izan zuten, fraideek bezala lekai-mee, Aro Modernoa Euskal Herrian, baina Aroa amaitzearekin batera garai aldartetsuak etorri ziren erlijioso-erlijiosen talde honentzat, atzera begira baino aurrera nahirik bideratu beharrekoak. Ikus dezagun.

## 5. EUSKAL HERRIKO FRANTZISKOTARRAK ARO GARAIKIDEAN

Gainerako Institutu zaharretan bezala, frantziskotarrenetan ere, Aro Garaikidea gertatu da aldarte historiko gorabeheratsuenak izandako Aroa. Aurrekoetan sortu, garatu, hedatu edo erreformatu egin ohi ziren Institutu frantziskotarrak; oraingoan, ordea, lehendabizi hurbileko zerikusi zuzena izan zuten gerrateak nozitu behar izan zituzten Komentuek; geroago, Liberalismoak zekarren proiektu politikoaren arrastoan sartu behar izan zuten (hau da, kasurik larrienean, Esklaustziora pasatu behar). Ondoko pausoak ezagunagoak gertatzen zaizkigu: Institutuen izanberritzea (1876-

1936), XX. mende-erdialdeko loraldia (1940-1965), eta, azkenik, bizi dugun beheraldi demografikoa (1966-2000).

Gorago eman dugu Aro Garaikiderako epekapen orokor bat, gehiago nabartu edo osa daitekeena. Hasteko, frantziskotarren<sup>ofm</sup> kasuari begira betiere, ohartzekoa da Euskal Ipar-Hegoaldeetan, prozesuko erritmoa ez dela bat bera izan:

1. IPARRALDEAN, Esklaustzioro orokorra berrogei urte aurreratu zen hemen (Penintsulan Jose Bonaparterena eta Hiru Urtekoa, behin-behinekoak izanik, albora uzten baditugu), eta gero, 60 urteko hausturaren ondoren, Izanberrikuntza zerbait aurreratu egin zen Iparraldean (1851); ondoko hiru hamarkadetan segida ona izan zuen honek, baina etenak etorri ziren (1880, 1903), juxtu Hegoaldean Izanberrikuntza eten berririk gabe berritzen ari zen bitartean (1875...). Izanberrikuntza horrek, ordea, ez zuen bete ahal izan Esklaustzioroak sortutako hutsunea: frantziskotarrak ez dira geroztik Baionara itzuli, eta Klaratarrik ez dago orain Iparraldean (bi Etxe horietako eraikinak berak ere desagertuak dira). Ziburuko komentu-erakina oraindik ere zutik dago, Ziburu-Donibane arteko portuan, baina fraiderik gabe. Aitzitik, Barnealdean (Nafarroa Beherean) dago fraideen Etxe bakarra, Donapaleun egon izan da, eta ezin da ahaztu emakumezko Kongregazio frantziskotarretako zenbait etxe ere.

2. HEGOALDEAN, beranduago ezarritako Esklaustzioro orokorrak hogeitau urteko luzapena izan zuen (1840-1859), eta ondoko hamabost urteetan bizialdi aldartetsua oso (Iraultza eta gerra: 1859-1875), harik eta azken karlistadaren ondoren, ahalegin haiek segurtasunez finkatuz joan ziren arte (1875...). Komentuen izanberritze eta garapena hiru epealditan banatuko nuke nik:

— *Herrietako Komentuen garaia (1875-1923)*: Lehenago Komentuak egondako herrietara itzultzen ahalegindu ziren frantziskotarrak, eta Penintsula (Gaztela, Aragoi) eta Misioetarako bideak ere irekitzen. Zarautz (1876), Arantzazu (1878) eta Olite/Erriberri (1880) izan ziren horretarako abiapuntu egituragarriak.

— *Hiriburuetarantzko abaleginak (1923-1976)*: Batez ere Ordena hiritarra izandako honek zailtasunak izan zituen euskal Hiriburuetara itzultzeko: klero diozesitarrek, garai bateko Ordena boteretsuari beldur ziola esango nuke. Fundazio berrien kronologiak ongi erakusten du zenbat kostatu zen Hirietara iristea: Donostia (1923), Bilbo (1930), Gasteiz (1973) eta Iruñea (1976).

— *Anaiarte Txikien eta Parrokien loraldia (1966-2000)*: Bi garapen-bide parekide eta elkarren osagarri ezagutuko ditugu: bata, Anaiarte Txikiena, batez ere Ordena-barruko gogoetatik, Kontziliotik eta premia sozial hautatuetatik datorrena; eta bestea, Parrokien ardura hartzea, Diozesien eskeuskaintza berrietatik jaioa.

3. GARAPEN DEMOGRAFIKO (1875/2000): Horiek horrela izanik, funtsezko datu demografiko bat berak harrapatu ditu Institutu guztiak eta frantziskotarrak ere: 1970aren inguruan eten egiten da guztiz Erakundeak bere ugaltzean duen iturria: ez dago gehiago "bokazioarik". Beraz, Izanberrikuntzaren hasieratik honako mende eta laurdena data horrek bitan banatzen du:

— *Garapen iraunkor bizkorraren garaia (1875-1970)*: Demografia bizkorra sumatzen da, 1940-1965. etako urteetan bere goi-sabaia joko duena. Arantzazuko Probintzia 754 lagun izatera iritsi zen.

— *Garapen gelditu eta erorkorraren garaia (1970-2000)*: Ez dago fraidegairik, fraidearte zahartu eta zaharkitu egiten da, hildakoek ez dute ordezkorik Erakundeari segida emateko.

Epekapen eta garapen- eta erortze-erritmo honek era bertsuan balio du Euskal Herrian lekututako Kongregazio frantziskotar berrientzat eta, behar diren nabardurekin, moja itxientzat ere, batez ere azken fasean (1970...).

Ikus daitekeenez, Lehenengo Ordena frantziskotarraren Euskal Herriko sortu-hazi-desagertzeko prozesuan, lehenengo zirkuluak sei mende behar izan zituen esperientzia osoa betetzeko (XIII.etik XIX. ra doana); Izanberrikuntzaren ondoren, haatik, badirudi mende eta erdiko zirkulua izan daitekeela hori, erritmo askoz azkarrago eta boteretsuagoa duela (demografia, kanpoko hedapena, Institutu ugaritzea, etab.), batez ere emakumezkoena gogotan hartzen bada.

Horra, bada: beste inoiz baino gertakari ugariago eta aldakuntza bortitzagoz betetako Aroa da Institutu Erlijosentzat eta frantziskotarrentzat Aro Garaikidea.

### 5.1. IRAULTZATIK LIBERALISMORA (1789-1840)

Frantziako Iraultza gertutik bizi izan zuen Euskal Herriak, ez Iparraldean bakarrik, gainera. Euskal Hegoaldeak ere ezagutu zituen proiektu politiko berriek Elizarekiko zekartzaten asmoak: Konbentzioko Gerrateak (1793-1795) erakutsi zuen nolako bortxaz eraso zezakeen Iraultzak, lehentxeko Frantziatik Hegoaldera ihesi etorritako elizgizonek esanda zeukatena berretsiz.

#### 5.1.1. Konbentzioko gerraren trauma

Konbentziotarren Armada iristean (1794ko abuztuaren 3an), Donostiako Txurrutaleko Komentua hutsik geratu zen, fraideek alde egin baitzuten. Halatsu gertatu zen beste Komentuetan ere: Tolosa eta Zarautzen, abuztuan bertan; azken honetan geratutako hiru fraideak (Añibarro idazlea, horien artean) preso hartu eta Baionako Gaztelura eraman zituzten. Orduan eta ondoko urteko erasoen ondoren, Gipuzkoa eta Bizkai osoak (Enkarterriak salbu) konbentziotarren esku geratu ziren; Iruñea erori ez bazen, Nafarroako Mendialde eta Araba gehiena frantsesen esku jausi ziren, Ebroraino.

Fraide eta moja frantziskotarraren Komentuak lehenengo estualdian bertan hustu ziren (1794): gutxienez, fraideen lau, Gipuzkoan (Donostia, Tolosa, Zarautz, Sasiola) eta mojen hamabi, Gipuzkoa-Bizkaietan (Zarautz, Bergara, Arrasate, Tolosa, Oñati (2), Elgoibar, Azkoitia, Azpeitia, Eibar, Segura). Hurrengo hilabeteetan beste sei etan gauza bera gertatu zen: Agurain, Gasteiz, Bilbo, Gernika, Urduña, Portugalete. Batzuen berri zehatzik ez dugu (Durango).

Ezbehar hori gorabehera, Arantzazuko Santutegia ihesi zetozeinei babesen bat eskaintzeko moduan izan zen. Bestalde, Komentuetako pitxi, zilar eta urreak euskal agintariei gerrarako eman behar izan zitzaizkien, lehenago frantsesek harrapatu ez bazituzten bederen (Azpeitia eta Tolosako klaratarretan, adibidez).

Sekula bizi izan gabeko esperientzia gertatu zitzaizen eliztarrei hura dena, hamahiru urte geroago, Gerra Napoleondarra lehertzean (1808), artean bizi-bizi gogoratuko zena. Kolpe hark eliz jendearen bihotzetan piztutako izuak eta buruetan jositako komentzimendu finkoak iraunkorrak izango ziren: handik aurrera, fraide, apaiz edo moja eta liberala kasik berezko kontraesana bilakatu zen.

#### 5.1.2. Arma artean Esklaustziora (1808-1840)

Klarki, Iraultza-ondoak ekarriko zituen garapen politiko-ideologiko berriekin aurrez aurre egokitu ziren eliztarrak. Hala ere, ez zen berehala egon erabateko batasun erregetiarrik fraideon artean ere. Hirurteko Konstituzionaleko gertakariak (1820-1823) hori erakusten digute, behintzat: Arabako frantziskotarrak nabarmenki egon ziren erregetiarrekin, baina Tolosako Komentua badirudi liberala zela; Solagurennek bost liberal ekintzale zenbatu ditu bertako Fraideartean (Solaguren s. d.: 175); Donostiakoan, berriz, aldeko eta kontrako sutsuak ageri zaizkigu, aldi berean.

Frantziar berrogei urte lehenago bezala, Espainian 1833tik aurrera Boterea liberalismora



lerratu zenean –orduan ere gerra bat tarteko izanik–, eliztarrek kontra agertu beharko zuten, Institutu Erlijosoen *status* zaharra zaindu nahirik.

Lehen Gerra Karlista eta beraren parean Gobernu zentralak garatu zuen Institutuen aurkako Leheria erabakigarriak suertatuko ziren, Elizaren eta Erregimen Liberalaren arteko haustura honetan.

Badirudi frantziskotarrek aurreko urteetako zailtzak galdu zituztela, eta zirt edo zart egitekoaren alde ageri zaizkigu: Bilbon, Urduñan eta Bianan, adibidez, erabaki sonatuak hartu zituzten, Komentuak utzi eta Fraidearteak On Karlos-en aldera pasatzean (1833). “A veces, era toda o casi toda la comunidad la que colaboraba activa y comprometidamente con la causa carlista”: Bermeoko Komentua izan zen hauetako bat (Solaguren/Maiz 1978: 24).

Saiatu ziren liberalak gerratean, fraide-mundu hori ongi lotzen, eta egoki etorri zitzaizenean emanda zituzten legeak bete arazten, hau da, Komentuak ixten. Fraideen Komentu frantziskotarren itxiera, beste Institutuetakoena bezala, gerrako hara-honatan menpe egon zen, zeren eta Esklaustrazio legeak ezin izan baitziren berehala bete arazi Euskal Herrian. Iraultza-ondoko gertakarien harian itxierak honela gertatu ziren Euskal Herrian, lehen-dabizi Iparraldean eta gero, Hegoaldean.

Komentuen itxierak, Herrialdeen arabera emanez eta betiere fraideei buruz bakarrik ari garela, zerrenda hau osatzen dute:

KOMENTUEN<sup>OFM</sup> ITXIERAK, HERRIALDEZ (1833-1840)

<i>Herrialdeak</i>	<i>Herriak</i>	<i>Zenbat</i>
<b>Iparraldea</b>	Baiona, Ziburu . . . . .	.2
<b>Araba</b>	Gasteiz (2), Argantzun, Bastida, Kanpezu . . . . .	.5
<b>Bizkaia</b>	Bilbo (2), Urduña, Forua, Bermeo. . . . .	.5
<b>Gipuzkoa</b>	Arantzazu, Bidaurreta, Donostia, Tolosa, Sasiola, Zarautz, Elgoibar, Arrasate . . . . .	.8
<b>Nafarroa</b>	Tafalla, Biana, Tuteria, Iruñea, Erriberri, Rocafort, Zangoza, Lizarra. . . . .	.8
<b>Orotara</b>		<b>.28</b>

ITURRIA: Intxausti 1998: 164, 178; Solaguren 1978: 24-25, 28-32; s. d.: 250, 254-255, 260, 278, 285, 353, 355, 370-371, 374, 375. Beren esanahi historikoagatik, Bidaurreta eta Rocafort ere sartu ditugu hemen.

Horrela itxi zen sei mendeko historia erlijiosoa, une hartan itxuraz eta garaiko politikaren gogoz izanberritza izan beharko ez zuena. Fraideek, bada, praktikan Erakunderik gabe geratu ziren, ondasunak galduta, Anaiarteko elkartasunik gabe, edozein sekular bezala gizarterako bizitzara moldatu-

beharrean. Hala ere, esklaustratu hauetako zenbait ez zuen etsi, eta ahaleginak eta bost egin zituen Komentuak berriro irekitzen eta Fraidearteak eratzten. Ikusiko dugu.

## 5.2. ESKLAUSTRAZIOKO IBILERAK ETA ONDOKO EUSKAL EKARPENAK

Esklaustrazio frantziskotar<sup>ofm</sup> euskal herritarren historia idazteke dago, baina Solagurenek bideratua duen argitaragabeko bere *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX: Vicisitudes y nomenclador bio-bibliográfico* deritzan liburuan ikusi ahal izango da hainbat albiste. Berori argitara ematean, eskuerago egongo dira esklaustratuen historia pertsonalak ez ezik garaiko giroa eta komentu eta Anaiarteen XIX. mendeko gorabeherak ere, bigarren Izanberrikuntzaren aurrekoa (1840-1878).

Gerren, legeen, aldiaren aldiko politikaren eta Administrazioaren erabakiz, mila eta bat bide ibili behar izan zituzten Euskal Herriko frantziskotarrek. Asko, Esklaustrazio orokorra bete arazi aurretik ere ibilia zen hor kanpotik, eta garaiko estatistiketan (1820, 1838) Komentuetako Anaiarteen datuak ematean, etxeokak eta Komentu-barrutian esklaustratuta bizi zirenak -denak batera eta bereizita- aipatzen ziren.

Lehen Karlistadakoan (1838) eta betiere On Karlos V.aren Hiru Probintzietako lurraldeetan 264 fraide bizi ziren, artean, eta horietako 104 komentuetatik at zebiltzan (*moradores* eta *exclaustrados* bezala bereizten ditu iturriak) (Solaguren s. d.: 342).

1839tik aurrera Legeak osorik bete arazi zirenean, denak bilakatu ziren esklaustratu, eta bakoitzak ahal zuen bidetik jo zuen: Amerikak bere Misiolari-Kolegioak izango zituen irekita, Euskal Iparraldea ez zegoen urrun, Italiak ere bere Eliz Estatuarekin babesik eman zezakeen; Frantzian hainbeste errefuxiatu karlista zegoenez, han ere lan egin zitekeen. Baina urruneko arriskutan sartu aurretik, bertako Diozesiak zeuden, benefizioren bat irabazi, lan pastoralen bat hartu edo han-hemen apaiz-zerbitzuak eskaintzeko.

Frantziskotarrek, gainera, besterik ere izan zezaketan: mojen kapilautzak, alegia. Hainbatetan kapilauaz gain apaiz laguntzaileak zituen Kapilautzak. Arantzazun bertan, badakigu, Kapilau Nagusia bera bezala, ondoko apaiz lagunak fraide frantziskotar esklaustratuak zirela, 1846tik 1878an Fraideartea izanberritu zen arte.

Beste molde bateko irtenbide gisara, berehalako hilabete edo urteetan norberaren familiartea ere

bazegoen (ez da ahantzi behar, orduan zama baino ohorea zela familiarentzat seme edo senide fraidea). Lehen unean, behinik behin, askotxok hartu behar izan zuen senitarterako bide hau. Azkenik, erlijioso zahar eta gaixo gutxi batzuek "Beneragarrien Etxeetan" egoitza aurkitzeko parada izan zuten: frantziskotarren artean<sup>ofm</sup>, bi izan ziren halako Etxeak, bata Oñatiko Bidaurretakoa eta bestea Erriberri/Oliteko komentua.

Fraide euskal herritarren atzerriko ibileren albiste orokor sistematikorik ez dugu oraindik esku artean baina daturen bat edo beste eman daiteke berorren garrantzia ulertzeko. Dedieu-k Akitaniaz esandakoa aski adierazgarria da. Probintzia hau euskal hegoaldeetarako sortu zuten batik bat, eta begira: barruti horretan, 1990a arte, 490 hildakotako 115 (kasik laurden bat: % 23,4) jatorriz ez-frantsesa izan da Izanberrikuntzatik hona. Honek bereziki XIX hamarkadetarako balio du, noski. Horietako 70 Penintsula Iberiarretik zetozen, eta hauetako 44 izan ziren euskal hegoaldeetarako: zalantzarik gabe, ez-frantsesen artean talderik handiena.

Bestalde, Ameriketako izanberritzean, XX. mende-hasierako *Schematismus* direlakoak begiratu gero, laster ageri da euskal herritarrek hango Misiolari-Kolegio eta Probintzietan izan zuten leku nabaria, batez ere Peru, Ekuador eta Bolivian. Datu honek, gainera, beste nabariago batera garamatza, nahitaez: XX. mendean Euskal Herriak frantziskotartasunari (fraideez ari naiz orain) egin dion ekarria esku zabala izan da, Euskal Herriatik kanpo ere, hau da, bertako Probintzia Erlijiosotik at. Beraza/Agirrezabalak 673 euskal seme zenbatu dituzte, euskal Herriatik kanpokoa Probintzietan (1880a aurreko azken hamarkadetatik hasi eta 1993a arte).

Frantziskotarren izanberritzean, bada, euskal ekarpena urrunera iritsi zen, ez Kantabriak edo Akitaniak zituzten Misioen bidez bakarrik, baita erbeste-Probintzia erlijiosoetan sartu ziren fraidegai euskaldunen bidez ere (Andaluziako Probintzietan eta Perun batik bat). Gehiago aipatuko ez dugun datu hau XX. mende osoan gogoan izatekoa da.

### 5.3. MENDE ETA LAURDENEAN ZIKLO OSO BAT (1875-2000)

Bistan da, hemen ez dugula modurik, dagokigun laburrean, epeka zehaztasun handitan sartzeko; horregatik, nahiago izan dut ezaugarri deigarrienen bidez azaldu mende eta laurden honetakoa.

Bestalde, historia zibila ezaguna da: Izanberrikuntza kanobista (1876-1931), azken partean bere Diktadura duela (Primo de Rivera: 1923-1930);

II. Errepublikak zalantzarik betetako politika ekarri zuen, ondoren (1931-1936); Gerrate Zibilak ez zituen frantziskotarrak<sup>ofm</sup> gogorregi jo (1936-1939). Gerraosteko urteak, Kontzilioa artekoak alegia, oparoak izan zituzten, Euskal Herrian eta Erbesteetan: Aro Garaikidean izan duten mende-laurdenik biziena, zalantzarik gabe.

Kontziliotik honakoa bertatik bertarako dugu: pastoral-berritu egin da eliz lana (eduki eta metodoetan; parrokiartu, gainera), fraidegaiak desagertu egin dira eta populazioa zahartu, Probintziaren egiturak ere antzaldatu egin dira (fraidegaien ikastegirik ez, Anaiarte Txikiak, gobernaera berriztatua, etab.); azkenik, gizartetik, elizatik eta Ordenako iturrietatik gogo-berritze nabaria sumatzen da Anaiengan eta Elkartean (mentalitateak, pentsamendua, izpiritualitatea...).

Oro har, esan daiteke historia honen abiada hagitz bizkortu dela, eta aldakuntza aldakuntzaren gain ageri zaigula: izanberritu/sortu, hazi, sabaia jo eta behera dator, gainerako Institutu Erlijiosoen parean frantziskotarrena ere. Zaila da aurkitzea Institutu Erlijiosoen historian Aro Garaikideko bi mende-etako kontraste eta bizitasunik izan duen pareko beste garairik.

#### 5.3.1. Hedapen-datu jakingarrienak

Euskal Herriko frantziskotarren Izanberrikuntza<sup>ofm</sup> IPARRALDEAN hasi zen, baina han ere Hegoaldeko hiru gizon ezagunek ekin zioten lanari, 1851n, Nafarroa Behereko Donapaleun lehen Komentua irekitzean: Aita J. Areso nafarra buru zela (1797-1878), eta L. Izagirre adunarra (1793-1873) eta J. Obieta gernikarra (1788-1857) lagun zituela. Hirurak ziren Misiolari-Kolegioetakoak (Erriberri, Zarautz); hauekin batera M. A. Beobide azpeitiarra (1814-1877) izan zen pisu handiko laugarren hegoaldearra, gerora Iparraldean Probintzial ere suertatu zena (1863-1869).

HEGOALDEKO Izanberrikuntza, aldarte politikoen ezarri zuten erritmo hautsiarekin egin zen, Mariano Estarta larrabetzuarraren (1804-1878) gidaritzapean. Erromatik 1853an izendatu zuten Komisari Probintzial, hemengo fraide Probintziari segida segurtatzeko egitekoarekin (Maiz 1978: 45-46). Hurrengo ia hamazortzi urteetan berea izango zen agintari-eginkizun hori, heriotza artekoa alegia (1859-1878).

#### *Euskal Herriko Komentuen irekierak*

Hemen aipatu ere egingo ez dugun hainbat joan-etorriren ondoren, 1859ko San Frantzisko Egunean ireki zen Bermeon lehenengo Komentu berria, ez garai bateko baldintza material egokiek baina bai



esklastratuekiko erakarmen bizkorra erakutsiz. Arrakasta horren ondorioz, Espainia osorako Delegatu izendatu zuten Estarta (1860: "Comisario General Delegado de las Provincias de España y Misiones de Marruecos y Tierra Santa" alegia) (Maiz 1978: 54). Isabel II.a Erreginak lagundu zuen izanberritze hau abiarazten.

Ondoko hamarkadan, pauso berriak eman ziren, Errioxako Donemiliagan (1865) eta Zarautzen (1867). Esklastratuak ez ezik gazteak ere inguratu ziren Komentu ireki berrietara. Bazirudien, ba, ongi hasitakoak ongi jarraitu behar zuela; baina, horra, 1868ko Iraultza nola lehertu zen: zalantza betetako hilabete batzuen ondoren, 1870ean, utzi behar izan zituzten berriz ere Komentuak, bigarren Esklastrazio orokorraren indarrez. Herriko etxebizitza, kapilau-etxe edo erretore-etxeetara sakabanatu ziren fraideok: Zarautz, Azpeitia, Aizarnazabal, Eibar, Arroa edo Bermeon elkartu ziren Komentuetatik kanpo.

Testuinguru horretan eta azken Karlistada leher-tuz zenean (1872-1876), Isabel II.ak babestua izanda-ko Aita Estarta Karlos VII.aren predikari eta babestu bilakatu zen (Solaguren/Maiz 1978: 43, 62), eta horri esker ireki zuen Tolosako Komentua (1875), hilabe- te gutxi barru, gerra amaitzearekin, itxiko zuena.

Ondoko urratsak izanberritze kanobistaren ba- rruan abiarazi ahal izan ziren (Zarautz, 1876), baina orain batez ere J. E. Epelde azkoitiarraren eskutik, estreina Arantzazu berreskuratz (1878) eta ondo- ren, Erriberri/Olite (1880). Horretarako Cánovas be- ra eraman zuen Epeldek Arantzazura, 1878ko abuz- tuan. Aipatutako hiru Etxe-zutabe horien gain jaso- ko zen Probintzia berriko (1886) funtsezko egitura.

Bigarren izanberritze honen ondoko pausoak lau- kian ageri den erritmoan eman ziren, gure egunak arte: mantso eta seguru; baina, hala ere, Aro Moder- noko frantziskotarren tamaina garai hartara berehala heldu gabe. Hauek dira Euskal Herriko 12 Komen- tu/Anaiarte nagusien zerrenda eta irekiera-urteak:

## KOMENTUEN IZANBERRITZE-URTEAK

<i>Komentu-berriak</i>	<i>Sortze-urteak</i>
Donapaleu	1851
Bermeo	1859, 1895
Zarautz	1867, 1876
Arantzazu	1878
Erriberri	1880
Forua	1886
Tolosa	1915
Donostia	1923
Bilbo-Irala	1930
Arrasate	1953
Gasteiz	1973
Iruñea	1976

Komentu hauei, 1968tik hona sortutako Anaiarte Txikiak gehitu behar zaizkie. Eibarren hasi zen ho- nelako lehenerentzia (1968), eta ondoren errenkan etorri dira molde berriko Anaiarte hauek: Obanos-Iruñea (1969...), Bilbo-Errekaldeberri (1970-1982), Donostia-Kaialde (1970-1982), Domintxaine (1972-1982), Gernika-Lumo (1972-1994), Karrantza (1975-1997), Erreterria-Zamalbide (1977-1991), Do- nostia-Jakin (1978...), Santurtzi (1990...). Hauekin batera edo eman daitezke berariazko Kapilautza egoitzadunak, edo Goardiano-Etxe ere (izan) diren Talde txikiak: Durango (1969...), Beasain (1872-1994), Segura (1981...).

Hemen, ordea, Etxe-ugalpena ez ezik, Anaiar- teetako pertsonal-hazkuntza ere begira daiteke, Probintzia Erlijosoko garapen orokorrarekin lotu- rik doana.

*EHko bilakaera demografiko orokorra*

Aro Modernoan bezala Garaikidean ere, Ko- mentuetako Anaiarteak fraide-kopuruz tamaina ezberdinekoak eta oso ezberdinekoak ere izan dira. Oro har, fraidegaien hezkuntzarako Ikastegiak izan dituzten Etxeak dira pisu demografiko handie- na izan dutenak: Arantzazu Filosofia/Teologiarekin; Zarautz, Nobiziategiarekin, eta Erriberri Teolo- gia/Filosofiarekin. Dena den, Anaiarte guztien haz- kuntza Probintziaren garapen demografiko oroko- rrarekin joan izan da, espero zitekeenez.

Ez gara sartuko Etxe guztien datuak bereizita ematen, baina Euskal Hegoaldeko kronologia esta- tistikoa nola gertatu den jakiteko datu orokorrak bilduta utziko ditugu hemen:

EHKO ANAIARTEAK ETA FRAIDEAK<sup>OPM</sup> (1881-1995)

<i>Urteak</i>	<i>Anaiarteak</i>	<i>Fraideak</i>
1881	3	71
1891	4	149
1900	5	166
1910	5	178
1916	7	207
1933	10	227
1952	11	339
1964	13	433
1982	23	260
1995	19	218

Egin kontu Donapaleu ere barnean dela hemen, irekita egon zen urteetan. *Gure berriko frantziskotarrak* (38. or.) liburuan ahanzitako Iruñe-Iturrama ere gogoan hartu da.

Izanberrikuntzako lehenerentzia mendean mantso joan zen Komentuen Eraikiera: 1925ean, artean zazpi ziren bakarrik Euskal Herriko Komentuak, eta Kapilautza bat (Bidaurreta); hurrengo berrogei

urteetan (1925-1964), bi komentu berri (Bilbo-Iralabari eta Arrasate) eta beste bi Kapilau-Etxe (Iruñe-Soto, Durango) gehitu zitzaizkien haiei. Azken Anaiarte-ugalpena Anaiarte Txikiei dagokie (laukian, 1982an punturik altuena: 9); hauetako batzuk Komentu ere bihurtzen diren bitartean (Iruñe-Iturrama, Segura) azken bi hamarkadetan, 23ko zenbakiak zerbait behera egiten du 1995ean, eta geroztik bat desagertu da (Karrantza, 1997).

Hemengo Etxeetako fraideen kopuruak beti gora egin zuen, Izanberrikuntzako lehen urteetatik 1960ko hamarkada arte; goraldi horrek bere aldi bare edo bizkorragoak izan zituen: nabariki, Gerra Zibiletik aurrera bortizki azkartu zen gora-behar hura, Errepublika garaiko Euskal Hegoaldeko zifra (227) kasik bikoiztuz (433), goiko taulan ikusten dugunez. Probintzia Erlijiosoko garapen-erritmoari erantzun zion horrek, Kapituluetao Aktek dioskuzenez, 1945ean 490 ziren Probintziako fraideak 754 izatera iritsi baitziren hogeitaz geroago (1964).

#### *Erbesteetako geografia berria*

Aurreko mendeetako historia gogoan izanda eta Aro Garaikidean Arantzazuko Probintziak ezagutu duen Anaiarte gero eta zabalagoaren arabera espero zitekeen Komentuen pertsonal-garapena bestelakoa izatea (handiagoa, alegia), baina ez da hori horrela gertatu. Besteak beste, honen arrazoi nagusi bat Arantzazuko Probintziak Erbesteetan izan duen hedapena da.

Euskal Herritik kanpoko hedapena, hemen komentuz komentu baino areago lurralde-barruti berriak hartuz egin zen lehen hogeita hamar urteetan (1876-1906): Aragoi besarkatuz, Caspe-n Etxea hartzean (1889); Errioxa, bi Komenturen bidez (Naxera eta Alfaro: biak 1895ean); Gaztela Zaharra, La Aguilera-tik (Burgos) hasita (1906). Harez gero, erbesteko Etxe hauek (La Aguilera-k hasiera batean egindako ekarpena salbu) bertako jatorrizko pertsonalez baino areago euskal herritarrez hornitu ziren.

XX. mende-hasieran, kanpoko hedapenerako beste garrantzizko erabaki bat ere badugu Arantzazuko Probintzian: eskaini zitzaion Kubako Irla bere lan-barrutizat hartu zuen (1904). Handik hona —eta 1962a arte batik bat— Kubako lantegiak hornitzen (parrokiak, eliz elkarteak, kazetaritza, etab.) indar franko eman zuen Probintziak. Besteak beste, Kuba izan zen XX. mendean kanpoko ekimenetan fraidearterik zabalena eramandakoa, eta 1960ko hamarkada arte gero eta erlijioso gehiago eramane zuena (1946an, adibidez, 69 fraide, eta 1950etan are gorago egin zuen kopuru horrek).

Kubakoaren ondoren, Txinakoa izan zen jauzi kualitatiboa, pertsonal gutxirekin eginga baina adore

pertsonalez betetako erabakia (Ipar Shaanxi, 1913). Baina, esandakoa eta gerokoa laburtuz, eman dezagun Erbesteetako horien kronologia: Kuba-Sto. Domingo-Puerto Rico-Miami (1904, 1967, 1966), Txinako Ipar Shaanxi (1913), Paraguay-Uruguay-Argentina (1938, 1944, 1957), Bolivia-El Beni (1957), eta Probintziakoak izan gabe baina bertakoekin, Japonia eta Hego Korea (1957, 1965). Barruti hauetako bakoitzean hainbat Etxe izan da, komentu izanik edo bestela.

Honek guztiak nolako indarrak eskatu zituen jakiteko, 1964ko zenbait datu emango dugu hemen:

FRAIDE ARANTZAZUARREN EUSKAL HERRIAZ KANPOKO ERBESTEETAKO BANAKETA (1964)

<i>Erbesteak</i>	<i>Fraideak</i>	<i>%</i>
Spainia	112	14,8
Europa	134	17,7
Amerika	154	20,4
Asia	8	1,0
<i>Orotara, erbesteetan</i>	<i>408</i>	<i>54,1</i>
<i>Probintzia osoa</i>	<i>754</i>	<i>100</i>

(Ehunekoak Probintzia osoko fraide-kopuruaren gain kalkulaturak)

Erbesteetan zihardutenen kopuru horrek (408) eta portzentaiak (%54,1) ematen dute Arantzazuko Probintziak hemendik kanpora izan duen tamaina. Gainera, are handiagoa da hori Probintziako fraidearte ez-aktiboa ia oso-osorik (ikasle fraidegaiak, alegia) Euskal Herrian egon izan dela gogoan hartzen bada.

Dena den, esan behar da Erbeste horietako hainbat lantegi (Penintsulan baino areago kanpokoan) giza probaleku ona izan dela, gero Probintziako gidaritza eta gobernu eramateko ere: honela, Arantzazuko Ministro Probintzial batzuek Ameriketara egin zuten beren lehen proba (Bikuña, Rekonkodo, Apraiz, Lete).

Maila arruntagoan, berriz, hemengo frantziskotarren lehen eliz esperientzia “modernoak” batzuetan han eginak izan ziren, Kontzilio-aurretik gehienbat: Prentsarena Kuban, Irratiena Paraguay-en, lur-kolonizazioa Bolivian, etab.

Ikusten denez, bada, Izanberrikuntza-ondoko lan-eremu geografikoa guztiz aldatu zen Arantzazuko Probintziarentzat, bere historiako bigarren aro honetan.

#### **5.3.2. Euskal Hegoaldeko eta Arantzazuko Probintziaren lurralde berria**

Iradoki dugunaren ondoren, badakigu “Kantabria” deituaren barruan geratu zirela Aragoi (1949a arte) eta gaur arte Gaztela Zaharra. Baina Euskal Hegoaldez beraz ere badago zeresanik.



Ikusi dugunez, Aro Modernoan -barruti hori 1551n eratu zenetik- Kantabria/Arantzazuko Probintziak ez zuen Nafarroa hartu bere baitan, partez eta aldi batez baizik (1567-1602). Hori horrela, euskal Hiru "Nazioak", *Mendialde* deituarekin (Santander: 7 Komentu) eta Gaztela hurbileko hiru Komentuarekin (Miranda, Frías, Poza) elkartuta joan ziren. Ikusi dugu nolako antolaera zuten eskualde hauek Probintziaren gobernurako.

Probintzia izanberritzean geografia orokor hura guztiz aldatu zen, Euskal Herrian eta gainerako Penintsulan ere. Ikusi dugunaz gain, euskal lurraldeko Ordenaren eraketa berria Kantabria/Arantzazuko barrutiar atxiki zitzaion Nafarroa, 1880an. Baina nola gertatu zen hori?

Moldaketa berria Erriberriko Komentuaren izanberritzearekin dator. Herriko Udalak eta Iruñeko Gotzaindegiak sustatutako irtenbidea "Beneragarrien Etxea" ostera ere Komentu frantziskotar bihurtzea izan zen. Horretarako, Kantabria/Arantzazuko Komisariari (arteana ez zen barruti hori Probintzia) deitu zitzaion garai bateko Komentua bere ardurapean har zezan. Deia baiezkoa eman zitzaion (Zangozan ez bezala), eta handik aurrera, ia mende betean, Erriberriko Komentua izan zen frantziskotarren<sup>ofm</sup> Nafarroako Komentu bakarra.

Probintziak berehala hartu zuen Erriberriko Probintziako fraidegaiantzat Ikastegi nagusietako bat bezala, lehenengo Teologi Ikastegia bertan jarri (1928a arte) eta gero Filosofiako ikasle fraidegaiantzat eratuz.

Oro har, esan daiteke, Kantabria Berriak Zaharreko geografia erabat ahaztu zuela, Gaztelan Burgosko Probintzia erlijioso frantziskotarra ez baitzen berri, ezta Sorkundekoa ere, eta Aragoi-koak, gisa berean, ez zuen biziberritu bere burua. Ondorioz, Nafarroak berezko barrutia Arantzazukoan aurkitu zuen.

Penintsulatik kanpoko hedapenetan ere, funtsezko aldakuntzak egin ziren Izanberrikuntzan. Independentziaren ondotik, Amerika ez zegoen jada Erret Zaingoaren (*Patronato Regio*) eta Indietako Kontseiluaren eskuduntzapean, ezta garai bateko Ordenako Komisari Jeneralen gobernupean ere, eta hango ardura pastoralak Erroman edo Amerikako Estatu bakoitzeko Hierarkiarekin bideratu behar ziren.

Probintzia izanberrituak horiekin hitz egin zuen zuzenean, eta zuzenki bere ardurapean izango zituen lurraldeak izendatu zitzaizkion. Beste Ordenetan bezalatsu, hemengo Probintzia frantziskotarrak ere berriazko lan- eta gobernu-eremuak hartu zituen Amerikan eta beste tokietan.

Honela osatu zen, irtenbide juridiko ezberdin eta aldakorrekin, Kantabria/Arantzazu Berriaren nazioarteko eremua, Guadalajara, Valladolid, Madril Penintsulan, edo Asunción, La Habana, Montevideo nahiz Argentinako Mar de Plata-ra heldu zena, eta fraideak Txina, Korea edo Japoniaraino bidali zituen.

Baina Euskal Herria ez da Hegoaldera mugatzen: aipatu dugu arestian Donapaleuko Komentuak Frantzia osorako izan zuen proiektzioa, gurean izan baitzuten Hexagonoko Probintzia frantziskotarrak beren lehen sehaska. Gero (1880az geroztik), lehen sustapen haren uhinak Ingalaterrara eta Kanadaraino ere iritsi ziren. Horiek ez ziren, noski, Hegoaldean bezala, hemendik gidatuko ziren barrutiak; aitzitik, txiki eta albora geratu zen Donapaleu, azkenik; baina lehenengo Euskal Herriko sortze-une hura ezingo da ahantzi, besterik gabe.

Dena den, hamarkada haietan, Euskal Herri berrera begira ere egin zen lan, bistan da, bertako landatze sozio-geografikoa segurtatuz.

### 5.3.3. Lurralde- eta herriarteko desorekak

Aro Modernoan garatutako komentuarteko oreka geografikoa (ikusi dugu goiko laukietan hori) ez da frantziskotarretan era berean gertatu Izanberrikuntzatik hona. Kasurik nabariena Arabakoa da: halako loraldia ezagututako frantziskotartasun arabarrak XX.ean ez du leku berririk aurkitu oso berandu arte Herrialde horretan, eta oraindik ere frantziskotarrak ez dute kristauartearentzako eliza ireki bat bera ere Araban. Hutsune hori are bistakoagoa da, gainera, Kaputxinoak ere gisa berean baitaude.

Nafarroa da beste antzeko zerbait: mende oso batean (1876-1976), Nafarroan Erriberriko Komentua bakarrik egon da, zeren eta 1969an sortutako Obanos-Arnotegiko taldea Anaiarte Txikietakoa izan baita. Tarte horretan, Iruñeko Soto Lezkairun Kapilautza bat ere mantendu zen (1933-1976), baina gehiagorik gabe.

Izanberrikuntza-ondoko Nafarroako frantziskotartasuna, batez ere kaputxinoen lanean oinarritu da (gogora hainbat herritako Etxe, Altsasu eta Lekaroztik hasi eta Tuteraraino: Iruñean bi, Zangoza, Lizarra, etab.). Itzal eta kalitate handiko lana izan da kaputxinoena.

Bakarra izanik ere, frantziskotarretan Erriberriko Komentuarena garrantzizkoa izan da, ez Ikastegia handia izan zuelako bakarrik, baita herri-misioaldi, Hirugarren Ordena eta komentu-barrutiko eskearen antolakuntza sozialagatik ere. Erriberrikoarena osatuz, Nafarroako euskal Mendialdean Donostiatik eta Tolosatik egin zen lan, eta nabaria da

eskualde horretan frantziskotarrek, beren euskaltasunagatik ere, izan duten presentzia herritarra.

Bizkaian murrizturik utzi zuen frantziskotarren lana Esklaustrazioak, Komentu zaharretako batzuk ez baitziren izanberritu, eta ordezkioak, inoiz, oso berandu eraiki ahal izan ziren. Goiztarra izan zen Bermeo (1859), baina Etxe izanberritu honek hogeita bost urteko etena izan zuen (1870-1895), harik eta mende-bukaeran Foruarekin bateratsu (1894) berritu zen arte. Bidean geratu ziren galduta Bilboko San Frantzisko eta San Mames, Hiriburuko bi Etxe historikoak. Ia 60 urte iragan ziren, azkenik Probintzia Izanberritzeari ekin eta Bilbo-Iralabarriko Komentua ireki zen arte (1930), eta orduan ere alboko auzo batean. Gero, Anaiarte Txikietan, ordea, Bizkaia ez da atzera geratu: lehenengo Errekaldeberri (1970), gero Karrantza (1975), berrikitan Santurtzi (1990), eta Durangokoan ere Kapilautzatik Komentu izateraino helduz, XX.eko bigarren partean.

Komentutan, Gipuzkoa izan da joan den mendean presentziarik orekatu, eraginkor eta ongien banatua izandakoa: Zarautz (1876), Arantzazu (1878), Tolosa (1915), Donostia (1923), Arrasate (1954), Beasain (1972), Segura (1981). Azkeneko bi hauek guztiz berriak, Komentu bezala behintzat. Donostiak, gainera, bi Anaiarte Txiki izan ditu (Jakin, Kaialde), eta baserriarteari begira, Errenteriako Zamalbide gogora daiteke. Azkeneko hauek itxi egin dira, baina Jakin-ekoak ongi bizirik dirau.

XX. mendeko azken laurdena arte, frantziskotarren Barneko Ikastegiak (Seminarioak), Hiriburuetatik kanpo egon dira, eta beraietako fraidegaiei urrun geratu ohi zitzaien hirietako bizitza. Hala izan da, harik eta 1976-1978.etan Arantzazu eta Erriberriko Ikastegiak (Teologia, Filosofia) Iruñe, Gasteiz edo Bilbora pasatu ziren arte.

Dena den, berreraikuntza guzti honetan, Probintzia erlijiosoan badago Aro Modernoarekiko beritasun nabaria gertatu den gune bat: Arantzazu.

#### **5.3.4. Arantzazu, Probintziako erdigune nagusia**

Kantabria edo Arantzazuko frantziskotarren Probintziari azken mende eta laurdenean nortasun berezia, erdigunetasun azkarra eta guztien batasun erreferentziala eman dizkion Komentua, Arantzazukoa izan da. Bere Anaiartean ere sekula Euskal Herrian frantziskotarrek izan duten fraide-kopururik handiena bildu da. Frantziskotarren euskal herritasuna ere Santutegi honetatik erakutsi izan da, gehienbat, eta honek erakarri du, zalan-tzarik gabe, frantziskotartasunera fraidegai-andanarik handiena.

Bestalde, kanpora begira, Santutegiko Komentuak gizarteratutako talde-irudi eta presentzia sozialek lehendabizi, eta, hein batean, Anaiarte frantziskotarrak bere baitan atzemandako auto-ulerpen eta auto-estimuek bestelako desorekak berdintzen lagundu diete Euskal Herriko frantziskotarrei. Santutegiaren eragin sinboliko eta erreala zinezkoa izan da, noski, alde horretatik.

Probintziako gobernuari gagozkiola, Arantzazu ez da izan -salbu une labur batez- barruti erlijioso horretako Nagusien egoitza ofiziala, baina, adibidez, azkeneko hamarkada askotan bertan ospatu dira Kapitulu Probintzial guztiak. Eta Santutegiko ospakuntza handietan Probintzia zuzenki arduratu da berorietaz.

Hezkuntza bidezko zenbait balio ere gogorarazi behar da: frantziskotargaiak Arantzazun egin dituzte beren ikasturteetako urte gehienak, gazte baten-tzat agian erabakigarrienak, hau da, lehenengo hiru/bost urteak eta azken laurak, Seminario Txikian eta Teologi Ikastegian. Alde batzuetatik Probintziako dinamikarrik bizkorrena hemen zegoenez, bertatik bertara bizi izan dute barruti zabal horretako bizitza. Gazteok denaren erdigunean zeuden.

Azpimarratzekoa da, azken buruan, hein handi batean Santutegiak lekutu dituela frantziskotarrak Euskal Herriko Erakunde erlijioso eta zibilen artean. Erdi Aro eta Aro Modernoan Hiriburuetako (Bilbo, Gasteiz) San Frantzisko Komentu haiek zuten *rol* instituzionala galdu den arren (Herrialdeko Artxibategia, Batzar Nagusien biltokia, etab.), Santutegiko Fraideartea izanberritu orduko (1878), Epeldek Erromesaldi Eusko-Nafarra antolatu zuen (1879), eta handik gutxira, Gasteizko Diozesiak Arantzazura bideratu zituen Erromesaldi ofizial handienak (1881: 35.000 lagun Bederatziurrenean); gero, Andre Mariaren koroazioa egin zen (1886), eta Gipuzkoako Zaindaritza aitortu zitzaion (1918), "probintziatasunean" irabaziz eta "euskal-herritasunean" galduz.

Esan gabe doa garaiko testuinguru sozio-erlijiosoan horrek guztiak esanahi argia eta itzal handia zituela, Probintzia erlijiosoan bezala gizarte zibilean eta Euskal Herriko Elizan. Xede historiko honetarako gogoia argi dago J. E. Epelde (†1886), E. Mz. de Zuazo (†1915) edo P. Lete (†1952) Ministro Probintzialen ahaleginetan, nahiz eta helmuga hori ez zen bakarra izan.

Arantzazuko pisu erlatibo honek, Euskal Herriarena ere azpimarratzen digu. Ikus dezagun.

#### **5.3.5. Euskal Herriaren Probintziako erdigunetasuna**

Arantzazuko Probintziak lurralde gehiago du Euskal Herriatik kanpo hemen bertan baino, eta



baieztapenak berdin balio du 1949ko lurralde-eremua berrantolatu zenetik ere (nahiz eta orduan Aragoi osoa utzi zen): Errioxa, Burgos, Valladolid, Kantabria eta Soria osorik baitaude Arantzazuko Probintzia frantziskotarrean<sup>ofm</sup>, Guadalajararen parte handi batekin eta Palentziako atal batekin.

Lurraldez euskal herritarra baino gehiago da gaztelaua Arantzazuko Probintzia; hala ere, barruti honetako fraideetako %80tik gora euskal herritarrak izan dira sortzez XX. mendean, ondoko lauki-ko zifra eta ehunekoetan ikus daitekeenez:

ARANTZAZU PROBINTZIAKO  
FRANTZISKOTARRREN SORTERRIAK (XX. MEND.)

	1916		1930		1946		1969		1998	
Probintziako Fraideak	352	-	438	-	476	-	712	-	389	-
Sortzez Eusk. Herrikoak	300	%85	380	%87	403	%85	609	%86	313	%80
Sortzez Erbesteetakoak	52	%15	58	%13	73	%15	103	%14	76	%20

Probintzia honek bere Barne-Ikastegi eta Hezkuntza-Etxe handiak Euskal Herrian izan ditu (Arantzazu, Forua, Zarautz, Erriberri), azken hamarkadetan Nobiziategia beste lekutan ere egon den arren. Ikasturteetako ibilera geografiko horrek Euskal Hegoalde osoa erakutsi izan dio fraidegai frantziskotarrari, Herrialde eta Diozesien gainetik.

Datu demografiko horien ondorioz, Ministro Probintzialak sortzez euskal herritarrek izan dira Izanberrikuntzatik hona (urtebeteko salbuespen batekin: Guati, 1878-1879): bi arabar (Antuñano, Zuazo), sei bizkaitar (Estarta, Dañobeitia, Arrue, Egiluz, Apraiz, Madariaga) eta hamahiru giputz (Epelde, Aztiria, Zulaika, Bikuña, Urkiola, Rekondo, Lete, Mendia, Asurabarrena, Larrañaga, Unzurrunzaga, Zuriarrain, Arregi).

Baina honek guztiak ez du esan nahi Probintziako kolektibo hau erbestera ireki ez denik; aitzitik, alderantziz izan dela esan behar da, goian ikusita dauzkagun datuen arabera. Euskal herritasun honek, gainera, ez du esan nahi Ordenaren nazioartekotasuna zaindu ez denik, arauetan bezala lanerako norabide nagusietan.

### 5.3.6. Ekimen pastoral eta sozialen ezaugarriak

Ordena frantziskotarra, "jeneralista" dela esan beharko genuke: eliz lanean alor guztiak izan di-

tzakeela bereak, eta behar denetan berezitu ere egin daitekeela, eta horrela egin izan da. Sakramentuak eta ebanjelizatzea, pastoral orokorrean: adibidez, prediku-lana izan da beti bere karismaren parte ohizkoen bat; horretan, bere adituak ere izan ditu, garai bateko Misiolari-Kolegioetan, edo 1950-1960. etako talde berezitu batekin, Aita Uberuaga buru zela, hemen eta Ameriketean. Sakramentuena lan arrunta izan zen beti, baina herrietako hiriztapenak murriz kanpo zeuden Komentu zaharrak besarkatu eta bildu dituenetik, ohizko elizgune edo parrokia bilakatu dira beroriek. Baina hori gertatu aurretik, hainbat hamarkadatan eskualde oso bateko aitor-leku ere bilakatu ziren fraideen elizak (Tolosako kasua dugu ezagunena).

Frantziskotarren predikarien joan-etorriak eza-gutzeko bada Komentuetako kroniketan zer begira, baina, besteak beste eta adibidez, horrek eskatuko lukeen euskal kartografia lantzeko daukagu oraindik, diozesitarrekiko harremanak nola sareztatu ziren begiratzeko, predikuetako testu eta moldeak arakatzeko, etab. Batez ere euskaraz egindako lana azpimarratzekoa izango litzateke hemen, Gipuzkoan batik bat, Nafarroako Mendialdean, eta ez gutxi Bizkaian.

Gogorarazi dugu Aro Modernoan frantziskotarren Euskal Herriko Komentuek beren Eskolak zituztela; beste gisa batean, Aro Garaikidean Komentu izanberritu batzuetan herritarrentzako eskola-lana estimagarria izan da, gehienetan tokian tokiko zuloak betez (Bermeo, Forua, Erriberri edo Arantzazu), baina inoiz konpromezu jarraitu eta giza baliabide zabalekin: hori da Zarauzko Antoniano Ikastetxearen historia, XX. mende ia osoan. Aurrerago ere esango dugu zerbait.

Biziki interesgarria da Ordena erlijiosoek, parroki lanaren faltaz, kristauartean sozialki txertatzeko erabili izan dituzten elkartasun-lanabesak ezagutzeari: Hirugarren Ordenak, Kofradiak edo Jaierazko Batasunak. Frantziskotarrek ere horrelako eliz elkardeen plataforma ongi zaindu izan dute Aro Garaikidean, batzuetan betidaniko Elkarteren bat sustatuz (Hirugarren Ordena da adibiderik ezagunena), baina garai berriek eskatzen zituzten Elkarre berriak ere abian jarritz (Frantziskotar Misio Bata-suna da horietako bat, esateko). Oro har, esan daiteke, ondoko Elkarre hauek izan direla Euskal Herriko Komentuetan eratu direnak:

## FRANTZISKOTARREN KOMENTUETAKO ELIZ ELKARTEAK (XX. mendea)

<i>Eliz Elkartea</i>	<i>Xedea</i>	<i>Ezaugarriak</i>
Hirugarren Ordena	Munduan, laiko gisara, Ebanjelioa eta San Frantziskoren kristau-eredua jarraitzea.	Ordenarekiko atxikimendu hertsia. Leon XIII.ak Eliza erromatarrean leku berezia aitortu zion (1883). Gerra-aurrean eta gero ere dozenaka mila kristau bereganatu zituen frantziskotar herritarren Elkarte honek. Komentuko elizan ez ezik, komentu-barruti osoan eta parroketan garrantzizkoa izan zen.
San Antonioren Jaierazko Batasuna	Santuarekiko debozioa sustatu (haur eta gazteekiko arreta bereziz), eta behartsuei laguntzea.	Alde batetik, oso jaierazkoa izanik, bestetik pobreziarekiko fededunen kontzientzia izan du, batzuetan obra sozial garrantzizkoak eraikiz.
Antoniotar Gaztedia	San Antonio eredutzat hartuta, gazteria kristaua elkartu eta gidatu izan zuen.	XX. mende-hasieran sortua, Elkartea ez zen Komentu guztietan errotu, baina batzuetan sozialki zeresan handia izan du (Zarautz, Donostia, Bermeo, Bilbo). Frantziskotarrek gazteak erakartzeko izan duten erakunde biziena.
Arantzazuko Ama Birjinaren Kofradia	Andre Mariarekiko debozioa eta Santutegiarekiko atxikimendua.	1917an sortua, gerra-aurrean eta ondoren zabalkunde bizkorra izan zuen; edo urteroko erromesaldietan lagundu zuen.
Misio-Batasun Frantziskotarra	Misio-espirtua sustatu, eta frantziskotarren, eta berezikiago arantzazuarren, Misioei lagundu.	Txinako Misioak hartu ondoren (1913), Komentu bakoitzean fededunen talde misiozaleak sustatu zituen, era ezberdinetako ekimenak bultzatuz.
Bestelako Elkartek	Komentuko tradizioa jarraikiz, edo bertako fraide kezkatoren batek sustatutako ekimenak dira, oro har.	Mota askotakoak izan daitezke: Mariaren Alabak, Gaeuzko Adorazioa, Mariaren Legioa, Santu edo Santaren baten Kofradia, etab.

Elkarte hauek historia ezberdinak, eta oso ezberdinak ere, izan ditzakete Etxe batetik bestera, Komentuko Fraideartearen arabera, inguru pastoralak ahalbideratzen zuenaren arabera. Oro har, Elkartek iraunkorrak izan ziren, eta indar onean iraun zuten 1970 ingurura arte. Ondoren, elkarte-multzo hau behera etorri da, edo garai bateko indarraldia oso apaldu zaio. Dena den, historialariarentzat interes handia dute, frantziskotartasunak erabilitako tresneria pastoral eta soziala ezagutu eta balioztatzeke.

Esan bezala, elkarte-sare pastoralak kasu batzuetan ez zen Komentura bertara mugatzen; aitzitik, batasun hauek Komentu-barrutia eta eskualde osoan bat ere har zezaketen, eta hainbat herritan iraunkorki sustraiturik zeuden. Esan bezala, hau izan zen batez ere Hirugarren Ordenaren eta Arantzazuko Kofradiaren kasua. 1934ko albisteek diotenez, 44.612 hirugarrendar frantziskotar<sup>ofm</sup> zeuden Euskal Hegoaldean bakarrik. Zarautz, Tolosa, Bermeo, Lekeitio, Azkoitia, Azpeitia, Durango eta abar zebiltzan kopuruz guztien aurretik. Berrogeita hamar urteren buruan lortutakoa zen halako arra-

kasta (1883-1934): % 49 giputzak ziren, %33 bizkaitarrak, %12 nafarrak eta %6 arabarrak. Eta, gainera, datu horietan ez ditugu bildu Aita Kaputxi-noen gidaritzapean zeuden hirugarrendarrak, bereziki ugariak Nafarroan.

Kanale hauen bidez frantziskotarrek posible izan zuten (eta bazen besterik ere, aldizkariaren harpidedunena, e. b.) jendetza handiak mugiaraztea: sonatuak izan ziren, adibidez, Hirugarrendarren Herrialdeko edo Euskal Herri osoko batzar jendetsuak: 4.000, 8.000 edo 12.000 laguneko jendetzak (Lezo, 1900; Beasain, 1909; Lekunberri, 1915; Begoña, 1916; Zumarraga, 1912; 1921 eta 1926ko ospakizunetakoak ez ziren atzera geratu: Limpas, Iruñea, etab.). Hau dena mugiarazi eta gidatzen aparteko abilezia erakutsi zuen gerra-aurrean Aita Jose A. Ugarte angiozartarrak. Ondoren ere, 1950.eko hamarkadan izan zen antzeko bilera herritarrik. Diozesi eta herrietako apaizen eta frantziskotarren arteko lankidetzak estua eskatu zuen guztiak.

Elkarteen sare honek argituko luke, ospakuntza berezietan aurrera ateratako ekimen berezien arrakasta: "Arantzazuko Urtea" deitua izan zen horietan.



ko bat (1955-1956), Ama Birjinaren Irudia ospakizun handiz herriz herri eraman zenekoa. Lan haue-tarako prozedura zein izan zen, edota zein mezu zabaldu zen, eta jendearen erantzuna nolakoa izan zen jakitea, historialariarentzat azterkizun interes-garria da, noski, gure erlijiotasun herritarra ezagutzeko.

Uste dudanez, Diozesiek eta Ordena erlijioso honek elkarri lagundu zioten, herritarrak erakarri, bizipen berriak eskaini eta eliz gidaritzaren soziala indartzen; gogora, adibidez, garai bateko edo gaurko Arantzazurako igoaldiak. Eliz barneko kidetasun hauek lagundu zuten, pentsa daitekeenez, elkar ezagutu, mesfidantza eta interes kaskarragoak baretu eta elkarren arteko ekinbide berriak indartzen.

Guztiaren ondorioz eta premiek ere eskatzen zutelako, frantziskotarren Komentuak parrokiartu egin dira, batzuetan bertako eliza Parrokia bilakatu delako (Bermeo, Bilbo, Donostia), bestetan elizgune bihurtu ofizialki, ingurukoekin pastoral bateratu batean lan eginez (Tolosa, Arrasate, Zarautz), eta, azkenik, baita Diozesietako Parrokia zaharren ardura fraideek hartu dutelako. Hegoaldeko Herrialde denetan gertatu da hori, azkeneko hiru hamarkadetan: Abornikano edo Izarra Araban, Karrantza edo Errigoiti Bizkaian, Olaberria eta Zegama Gipuzkoan, Beire nahiz Traibuenas Nafarroan, eta ez dira denak.

Esango nuke, fraideen parrokiartzeko hau dela frantziskotarren biziera eta presentzia pastoral gehien itxuraldatu dituen bizpahiru arrazoietakoa bat. Garrantzizkoa, uste dudanez.

### 5.3.7. Eskolagintza eta Irakaskuntza

Kultura eta Irakaskuntza ez dira izan berriazko mundua frantziskotarrentzat, beren karismari berriaz atxikia; hala ere, XIII. mendetik bertatik domingotarrekin batera Europako Unibertsitate handietan sartu ziren, eta beren Teologi Ikastegiak sortu zituzten. Maisu handirik ez zen falta izan, orduan: Alexander Haleskoa, San Bonabentura. Hastapen haien lekuko, hor dago San Frantziskok San Antonio Paduakori idatzitako gutuna; bere laburrean, hauxe dio:

*Atsegin dut zuk anaiei teologia sakratua irakastea, baldin eta ikasketa horregatik otoitz- eta debozio-espirtua itzaltzen ez baduzu, Erregelaren esana denez.*

Ordenak beti izan ditu, noski, fraidegaien prestakuntzarako Ikastegiak, eta Aro Garaikidean ikusi dugu non lekutu izan diren: Seminario Txikiak, Arantzazu eta Foruan, bereziki; gainerako eliz ikasketetarako, Arantzazu eta Erriberrin. Horrela izan

zen egoera 1880ko hamarkadatik aurrera, ia mende-bete; gero (1976-1978), kanpoko Unibertsitate edo Ikastegiak bilatu dira horretarako (Deustua, Gasteiz edo Iruña).

Herritarrentzako eskolagintza eta eskola-politika unean uneko gogo eta premiei erantzunez egin dira, eta ez printzipiozko irizpide orokor eta plangintzei ihardetsiz. Hau da, behintzat, Euskal Herriko ibileran ikus daitekeena; adibiderik nahi balitz, Donostiako Txurrutal Komentuan gertatua (haurrentzako euskal Eskola, XVIII. mendean) edo Zarautz eta Bermeon XX.ean ageri zaiguna aipatuko nituzke (Lanbide-heziketa, Arrantzale-Eskola).

Aro Modernoan, eta garaiko moldez, ez zen falta izan aurrekaririk (zerbait adierazi dugu), izan ere Komentuko Fundazio-baldintzek halakorik ezartzen zutenean, Eskolak eratu baitziren baita Goi-Ikasketak egiteko ere, Hiriburuetan noski, eta herri nagusitxoenetan ere: Tolosa, Arrasate. Zoritzarrez, Komentuetako eskola-historia horiek ez ditugu aski ezagutzen.

Izanberrikuntzaren ondoren, Lehen Mailako eskolak nahikoa maiz aurkitzen ditugu frantziskotarren Komentuetan, batzuetan zeregin horretarako deituak izan baitziren fraideak, edo herriko premiek horixe eskatuta ireki zituzten lehen eskola horiek: Bermeo, Forua, Zarautz, Erriberri, edo Arantzazuko Aita J. I. Lasaren Eskolatxoak.

Ekimen berriek sustatuta, batzuetan Lehen Eskola haiek gora egin zuten, eta Bigarren Mailako Irakaskuntzara eman ziren. Garapen-molde horren ildotik joan da eginez Zarauzko konplexua, bakarra izan gabe, Arantzazuko Probintziaren barruan beharbada Soriako Ikastetxean bere kidekoa izan dezakeena.

Giza baliabide dezente eman da Eskola-mundu honetan, eta ez da falta izan beren bizitza osorik horretantxe eman duen fraiderik; hala ere, frantziskotarrek ez dute ikusi izan Irakaskuntzaren alor hau beren berriazko lan-eremu bezala, eta oro har ez dira horretarako berezitu.

Azken mende-laurden luze batean, hainbat erlijioso kanpoko Eskola, Ikastegi eta Unibertsitateetan ari da lanean, batzuetan Erlijio-Zientzietan (Moralak, Dogma, Biblia, Frantziskotartasuna), baina baita beste jakitate-alorretan ere (Filosofia, Psikologia, etab.). Euskal Herriko Unibertsitatean (Donostia), Deustukoan, Gasteizko Teologi Fakultatean, Erromako San Antonion, etab. Irakasleok, oro har, Euskal Herriko Hiriburuetako Anaiarteetan bizi dira.

### 5.3.8. Kulturgintzan

Hiru puntu aipatu nahiko nituzke hemen: oro har, frantziskotarren mundu idatzia; bigarren, kul-

tura frantziskotarra, eta azkenik, euskal kulturgingintza. Hiruretan lan egin izan dute, eta kasu honetan eremu bakoitzak ditu bere ezaugarriak.

#### *Kultura idatzia: liburu eta aldizkariak*

Frantziskotarren ekoizpen bibliografikoaren albisteak J. Rz. de Larrinagak lehenago eta orain K. Zubizarretak eta J. Etxeberriak bildu dituzte; hark Aro Modernokoa, eta besteok Garaikidekoa, baina ez daukagu oraingoz katalogo argitaraturik. Aldizkarietako idazlanena ere hor dago, autorez autore jasota. Guztiorren azterketa falta zaigu, balantze argi bat izateko.

Lehen iritzi bezala, zera esango nuke: Izanberrikuntza-ondoko aurreneko belaunak ez zuela arreta handirik jarri, edo ezin izan zuela jarri, fraidegai gazteak Goi-lkastegietan eskolatzen, dakidanez XX. mendeko lehen hamarkada arte fraide bat bera ere ez baitzen Unibertsitatera joan. 1905-1925.etan ikusten dugu hor bestelako politika berri baten hastapena. Horregatik, lehen garai haietan ez dago apenas ikerlan idatzirik, eta gero ere apenas Irakaslegoaren iker- eta argitalpen-politika sistematiko eta iraunkorrik. Hala ere, bada Irakasle izan gabe beste bideren batetik ikerlanean ibilitako erlijioso franko: Juan Ruiz de Larrinaga eta J. A. Lizarralde historialariak, Luis, Jose eta Modesto Sarasola lekeitiarrak, etab. Irakasle zirenen artean, R. Zulaika (bibliografoa), B. Madariaga (pedagogia frantziskotarra), B. Mendia (Lull-en filosofia).

Gerraostean, belaunaldi berria ageri zaigu: I. Omaetxebarria (historia, hizkuntzalaritza), P. Sagues eta A. Uribe (historia frantziskotarra), J. Goitia (Biblia) edo F. Alluntis eta Z. Solaguren (filosofia), batez ere Ordenako aldizkari zientifikoetan idatzi dutenak (Erroma, Washintong, Madril). P. Anasagasti-k iker-munduaren eta kazetaritzaren arteko lana utzi du berezikiago.

Azken frantziskotar unibertsitariak, egoera berriari erantzunez (euskaraz nahiz erdaraz), ekoizpen intelektual jarraituago bat burutzen ari dira: S. Aiestaran eta P. Huizi (psikologia), X. Andonegi (filosofia), J. L. Elortza (Biblia), J. M. Mz. de Ilarduia (biziera erlijioso), etab.

Hori dena gogoan dugula, esan dezagun frantziskotarren idazketa-lana batez ere kazetaritza erlijiosoarena izan dela, gehien hortxe idatzi dutelako ez ezik, aldizkariak izan direlako idatzitakoaren zabalzaile onenak. Gezurra badirudi ere, Izanberrikuntzako lehen hogeita hamar urteetan euskal frantziskotarrek ez zuten aldizkari propiorik izan, eta Ordenako erbestekoetan idazten zuten (Santiago, Sevilla, Bartzelona); lehenengoa sortu zutenean ere (1910), Kubako La Habanan agertu zen aldizkaria: *San Antonio* (gerora *Semanario Católico*, *La*

*Quincena*), halako arrakastarekin zabaldu zena, 1960ko hamarkada arte.

Saio haren ondoren, Arantzazu, Zarautz eta Tolosan jaio ziren berriak: *Apostolado Seráfico-Misiones Franciscanas* (1914, 1926), *Aránzazu-Arantzazu* (1921, 1987), *San Antonio/SAP* (1946), Hirugarren Ordenako ezagunenak: *Franciscanismo* eta *Anaitasuna* biak (1950, 1952), hasieran baserri-tarrentzakoa izandako *Goiz-Argi* (1958-1980). 1960.eko hamarkadan Arantzazutik 70.000/80.000 aldizkari-ale zabaltzen ziren hilero inguruetera, parte bat euskaraz eta gehiena erdaraz. Azkenik, urte haietako euskarazko eta gaztelaniazko egutegi banari ere bere lekua aitortu behar zaie.

Frantziskotarren artean erdal luma fintzat eduki izan da zenbait kazetarirena: gerra-aurrean, Luis Sarasola, M. García de Andoin, J. A. Urkiola, etab.; gerraostean, berriz, J. Iraola, P. Anasagasti edo L. A. Bilbao, eta ekoizpen handiko J. A. Elustondo.

Ez naiz zabalduko gaur egun denok ezagutzen dugun Irrati-lanera, Egunkari, Irrati eta Telebistara iristen den horretara (Pello Zabala, I. Beristain).

Kazetaritza-lan honen balioespena egiteke dago oraindik, nahiz eta orain -idazlez idazle lanak jasota daudenetik- samurragoa izango den kritika- eta azterlan hori. Dena den, iker-munduak edo kazetaritza idatzi eta mintzatuek ez dute agortzen kulturaren egindako lana.

Frantziskotarren kultur-mundua osatzeko, idazketaren ondoan, artelan plastikoak eta musika aipatu behar dira nahitaez.

Musikari buruz ez dut deus esango, uste dudanez J. L. Ansorenak azalduko baitu alde hori; baina artista frantziskotarra gogora ekartzekoa da. XVII. Mendeko Migel Aranburu fraide eta arkitekto zeraindarra goraiatzaren ibili gabe, XX. mendeko margolari eta eskultoreak oraindik bizirik ditugunak daude. Kaputxinoen artean Antonio Oteiza da bat (Jorge-ren anaia), eta Arantzazuko Basilikaren inguruan aritutako frantziskotarrak<sup>ofm</sup>: X. Alvarez de Eulate, J. L. Iriondo, X. Egaña.

Obra kultural horren guztiaren ondoan, frantziskotartasunaren inguruko lana estimagarria izan da, ez hemen egin delako bakarrik, baizik eta hemen eginda erdal mundu zabalagorako eredugarria delako ere.

#### *Kultura frantziskotarra*

1975etik aurrera Arantzazuko Argitaletxeak frantziskotartasunari buruzko liburu-bilduma bat jarri zuen abian, J. A. Guerra donostiarrak gidatua eta neurri onean zinezko argitaratze-lana berak landu eta egokitua. Harez gero, berrogei eta gehiago titulu jarri ditu kalean.



Hautatutako testu-mota, maila eta irakurlegoarentzat dagoen gaztelaniazko liburu-sortarik zabalena dela esan dezakegu. Jakina da, frantziskotartasunak jatorrizko iturrien berrazterketa kritiko erraldoia egin duela azken mendean, eta 1893az gero (Paul Sabatier protestantearen lanen ondoren) "arazo frantziskotarra" modan ere egon dela. Liburutegi oso bat dago orain, eta etengabe hazten hari da. Vatikanoko II.ak ere ez du barkatu, eta berri-rakurketa horren interesa hazi egin da. Bestalde, hori dena gurera iristean, hemen ere landare berriak eman ditu, gogoeta serio eta engaiatu batekin. Bi ekoizpen-lantegi horietatik -kanpoko eta hemengo- zetorrenari bide emateko bilduma da *Hermano Francisco* deitu hau.

1998an hasita, bigarren sorta bat jaio da, euskaraz eta erdaraz emana (*Franciscalia Vasconica* deritzana) eta Euskal Herriko frantziskotartasunean erdigunetua; P. Agirrebaltzategik gidatzen du. Dagoeneko bost titulu atera ditu Euskal Herriaz ari direnak, eta, batez ere bildumaz kanpo eta lan berezi bezala, aspalditik espero zen San Frantzisko eta Sta. Klararen idazki, biografia eta garaiko legenda euskaratuak eman dizkigu argitaratzaile berak, talde zabal baten emaitza heldu bezala.

Azken argitarapen hau lehendik, hamarkadatan, euskaraz eta hizkuntzaren alde egindako fruitua ere izan da, noski, eta horretaz esan behar da zerbait.

### *Euskal kultur gintzan*

Frantziskotarrek beti euskararen alde jardunaren sona dute hor-hemen, baina uste horrek bere nabardurak behar ditu. Egiteko pastoraletan -predikuan batik bat- hizkuntz leialtasun hori gorde izana, segur aski egia da, erlatiboki eta Eliza Katolikoaren hizkuntz politikak horretarako bide samurragoa eskaintzen baitzuen. Baina Izanberrikuntzatik honako kultur historian aldi ezberdinak egon direla uste dut, frantziskotarren artean.

Azken Izanberritzeari ekitean (1876), garai bateko luma ederrak desagertuta zeuden: Astarloa (†1821) eta Añibarro (†1830) aspaldi joan ziren, Joan Mateo Zabala ere bai (†1840) edo J. K. Etxeberria (†1853), eta J. A. Uriarte (†1868) ez zen heldu bigarren Izanberritzeraino. Tradizio bat eten egin zen, ba, hor, ondorengo ordezkoko belaun euskaltzalea atzeratu zelako. Hala ere, predikarien tradizioak eutsi zion bereari, ez idatz-tradizioak.

Abertzaletasun berriak eraginda, beste Ordene-tan hainbat lagun euskaltzaletu zenean, frantziskotarrak zerbait atzerago ageri zaizkigu euskal kultur gintzan (gogora Kaputxinoen kasua, jada XX. mendeko lehen hamarkadan, josulagun eta apaizena bigarreanean, etab.). Frantziskotarretan, luma bakar

bat ageri da hor aintzakotzat hartzeko modukoa, Antonio Arruti zarauztarrarena (†1919), baina berehalako segida garbirik izan ez zuena. Eusko Pizkundearen barnean lekurik izan zezakeen Lizarralde oso motz geratu zen bere euskarazko idazketan.

Badirudi, bada, II. Errepublikako urteetan suspertu zirela frantziskotar gazteen euskaltzaletasun kulturala eta idazketarako grina. Kanpoko oihartzunak barne (Aitzol, Orixe, eta beste), I. Omaetxebarriri aitortu beharko diogu une hartako gidaritza ongi informatua.

Hasitako bide hura gerrak ere ezin izan zuen ito, eta 1940. etako hamarkadak jarri zuen abian 1950. etako uzta hobea, agintariak berek ere horren gidaritza hartu zutelako: nabaria da Pablo Lete Probintzialaren apostua, S. Mitxelenaren obra sustatu eta kalera ateratzean. 1950. etako egokiera historiko-kulturala (Basilika Berria eta ospakizun kulturalak) ez da erraz errepikatuko den horietakoa; sarritan gogorazi zigun hori Gandiagak bere bizi-pen kulturalak aipatzean.

Testuinguru horretakoa da, noski, *Jakin* -aldizkaria eta taldea (1956)-, betiere Euskal Herriko giro orokorraren barnean ulertzen dugula. Pauso berritzaile gertatuko zen hori, lanerako eredu bat eskainiz, euskalgintzan Ordena eta Kongregazioen arteko harremanak azkartuz eta hasitakoari oztopoen gainetik behin eta berriz (1962, 1968, 1975) segida segurtatuz.

Izanberrikuntzatik honako frantziskotarren ekoizpen idatzi-argitaratua ezagutzeko (liburutakoa, alegia) argitara-bidean den V. Mendeurren honetako *Arantzazu. Ikerlan eta saioak* liburuan ikus dezake irakurleak Torrealdairen lana.

Honaino Izanberrikuntzako hainbat ezaugarri aipatu dugu, baina nolahi ere motz geratu gara, pobre: Institutu Erlijosoen historian erlijiosoen fede-bizipena, espiritualitatea, anaiarteko harremanak, zinezko barne-bizitza ezagutu beharko genuke. Hau da, azaltzeko, historiarik zailena: bakoitzaren misterio pertsonala ere bai, azkenean.

### **5.3.9. Anaiarteko bakoitzaren fede-bizipena**

Nola atzeman eguneroko bizitzaren eta norberaren bizialdi osoko hari ezkutua den hau, bere beran, segurtasunean, zalantzetan, joan-etorri sozialean, etxeko lanetan nahiz jendaurrean burututako jardunean? Fraide frantziskotarrek ez dute, ia sekula, egunkari pertsonalik utzi, artxiboetan ez da horretaz deus esaten ia... Eta, hala ere, honetaraino iritsiko ez den Institutu Erlijosoen Historia beti izango da historia elbarria, arimarik gabea, sarritan -abiatzean eta gero- erlijiosoen historia pertsonal hori guztiz funtsezkoa baita. Hala ere, hain erakargarria den mundu pertsonal hori zaila da antzematen.

#### 5.4. MOJA FRANTZISKOTAR ITXIAK EUSKAL HERRIAN (XX. MENDEA)

Santa Klararekin hasi zen emakume frantziskotarren historia, baina geroago Hirugarren Ordenako elisabetarrak gehitu zitzaizkien haiei (1229, 1413), eta 1511n Sorkundetarren Ordena. Euskal Herriko moja frantziskotar itxien Komentuak hiru molde horietakoak izan dira, geroztik. Batzuek herrietan lehendik zeuden serorei segidatasun instituzional berria eman zieten, Erregela bat eskaintzean, eta hainbatek oinarri guztiz berrietatik hasi zuen bere historia, espreski klaratarren Erregela hartuz edo Hirugarren Ordenatik denboren harian Bigarrenera pasatuz.

Orain hemen, gehiagotarako lekurik ez dugularik, XX. mendeko datu zehatz batzuk bilduko ditugu, emakumezko frantziskotarren euskal geografia eta estatistika zenbait eskainiz. Institutu Erlijosorekiko duten atxikimenduaren aldetik (klaratar, elisabetar ala sorkundetar?), estatistika hauetarako 2000. urtean Komentu bakoitzak zuen izaera hartuko dugu gogoan (zeren batzuek izaeraz aldatu baitira mendean zehar, elisabetarrak erabat desagerteraino, halakoak klaratarretara igarotzean). Hori gogoan harturik, bada, honako hau da gaur egun Euskal Herriko moja itxiek duten banaketa geografikoa:

MOJA FRANTZISKOTAR ITXIEN XX. MENDEKO KOMENTUAK

<i>Herrialdeak</i>	<i>Herriak</i>	<i>Urteak</i>	<i>Erakundea</i>
<b>Araba:</b> 4 komentu	Agurain	1611	Klaratarrak
	Dulantzi	1593	Klaratarrak
	Gasteiz-San Antonio	a. 1247	Klaratarrak
	Gasteiz-Badaia	1910	Klaratarrak
<b>Bizkaia:</b> 11 komentu	Areatza	1620	Klaratarrak
	Balmaseda	1666-1984	Klaratarrak
	Bermeo	1962-2002	Klaratarrak
	Bilbo-Abando-Begoña-Derio	1558, 1971	Klaratarrak
	Bilbo-Sta. Krutz-Loiu	1603, 1966	Klaratarrak
	Bilbo-Sorkundea	1526	Sorkundetarrak
	Durango	1439	Klaratarrak
	Gernika	1422	Klaratarrak
	Gordexola	1450-1985	Klaratarrak
	Portugaleta	1550	Klaratarrak
	Urduña	1550	Klaratarrak
<b>Gipuzkoa:</b> 12 komentu	Arrasate	1511	Sorkundetarrak
	Azkoitia	1607	Klaratarrak
	Azpeitia	1497	Sorkundetarrak
	Bergara	1513	Klaratarrak
	Donostia	1866	Sorkundetarrak
	Eibar	1634	Sorkundetarrak
	Elgoibar	1533	Klaratarrak
	Oñati-Bidaurreta	1511	Klaratarrak
	Oñati-Sta. Ana	1509	Klaratarrak
	Segura	1519	Sorkundetarrak
	Tolosa	1612	Klaratarrak
	Zarautz	1611	Klaratarrak
<b>Nafarroa:</b> 10 komentu	Arizkun	1737	Klaratarrak
	Fitero	1940	Klaratarrak
	Iruñea-Erriberri	1228, 1803	Klaratarrak
	Lekunberri	1895	Klaratarrak
	Lerin-Urantzia	1678, 1864	Sorkundetarrak
	Lizarra-Sta. Klara	1262	Klaratarrak
	Lizarra-Errekolekta	1731	Sorkundetarrak
	Tafalla	1671	Sorkundetarrak
	Tutera	1261	Klaratarrak
	Zentroniko	1939	Klaratarrak
<b>Komentuak:</b> 37	<b>Herriak:</b> 34		<b>Klaratarrak:</b> 28 <b>Sorkundetarrak:</b> 9



Laukian ikus daitekeenez, 37 Monasterio edo Komentu egon dira Euskal Hegoaldean XX. mende zehar, 28 klaratarrenak izan dira; sorkundetarrenak, 9 (Iparraldean ez dago Iraultzatik honakotan, moja frantziskotar itxirik). Herrialdez, honela banatu dira beroriek: Araban 4, Bizkaian 11, Gipuzkoan 12 eta Nafarroan 10. Aro Modernotik zetozenak izan dira gehienak (29), eta gutxi batzuk Garaikidean sortuak (6).

Azken hauetako hiru erbestetik lekuz aldatuta irekiak dira (Périgueux, Calatayud eta Segoviatik Gasteiz-Badaia, Fitero eta Zentronikora aldatuak), eta beste hiru erabat berriak (Donostia-Kristobaldegi, Lekunberri, Bermeo).

Herrialdean bertan herriz aldatutakorik ere egon da, hala nola, Bizkaian Bilbo-Begoñatik Derio-Artebakarra-ra joandakoa (1971), Bilbo-Sta. Krutz Komentutik Loiura aldatua (1966); Nafarroan, Iruñetik Erriberrira joana (1803) eta Lerindik Urantziara aldatua (1864). Historia bereziena Iruñe-Erriberrikoak du, klaratarren lehen Etxea izanik (1228), utzi egin behar izan baitzuen Iruñeko Komentua Ahizparte honek, azkenik Erriberrir/Oliteko Antoniotar Ospitalarien komentuan egoitza hartzeko. Hala ere, oro har, leku-aldatze hauek gorabehera, tokikotasun luze eta iraunkorrekoak izan dira moja itxien Komentuak.

Udalerrri barruko aldaketarik ere egon da: Gasteiz-en Ehariko Atea kaletik Badaiaiko karrikako eraikin berrira joan ziren klaratarrak (1969); Arrasaten sorkundetarrek herri-erdialdetik Uribarri Auzora, eta antzeko zerbait gertatu da Elgoibar, Eibar eta Oñatiko Sta. Anan moja frantziskotarrekin.

Dena den, XX. mende-hasieran zeuden Monasterioetatik apenas itxi den bat edo beste. Balmasedakoa hustu zenean, Loiura joan ziren (1984), eta Gordexolakoak, ostera, Oñati eta beste Komentutara (1985). Hori da egoera, lerro hauek 2002ko ekainean idazten direnean, zeren eta uste daiteke, egoera demografikoak behartuta, bi komentuarte hauen (klaratar eta sorkundetarrena, alegia) egoera arrunt itxuralda daitekeela berehalako urte gutxitan.

Orain artean, Komentu hauek denak Etxe biziak izan dira, beren pertsonalean aldakorak, nahiz eta moja itxiek berez iraunkorki Etxeari atxikiak izan behar duten. Izan ere, batzuetan Komenturik handienek beste Monasterioetara lagunik pasa izan dute, eta inoiz baita Ameriketara ere (gogora, Durango, Oñati-Bidaurreta, Agurain, eta beste). Baina, batez ere, aldakorak izan dira beren erlijiosakopuruetan.

XX. mendea hiru epealditan banatu dugu, eta data jakinetarako (1929, 1960, 2000) bildu ahal izan

ditugu datu estatistiko batzuk, nahiz eta klaratarren kasuan Etxe guzti-guztietakoak ezin izan ditugun beti jaso (25 komentu, 1929rako; 27, 1960ean; 26 2000.ean). Ondoko laukian laburbiltzen dugu, bada, mendeko bilakaera demografikoa:

EHKO MOJA ITXI FRANTZISKOTARRAK  
BILAKAERA DEMOGRAFIKO OROKORRA (XX. m.)

Ordena	1929	1960	*2000
Klaratarrak	635	781	386
Sorkundetarrek	262	246	126
Orotara	897	1.027	512

ITURRIA: Autorearen langaietatik— \*Etxe denetako estatistikarik gabe

Moja itxien historian, 1950. etako urteetan dago bihurtune historiko jakingarri bat: Ordura arte guztiz independente izateaz gain beren artean inolako zerbitzu amankomunik ez zuten Ordena bakoitze-ko Komentuak Federazio banatan bildu ziren, Ama Lehendakaria hautatuz eta Erromatik izendatutako Aholkari Erlijiosoa ematen zitzaie. Horrek bere ondorio praktikoak izan zituen.

Esate baterako:

- Nobiziategi bateratuak sortu ziren.
- Kontzilio-ondoko heziketa-zerbitzu sistematikoak eta kalitate hobekoak: hizlari adituak, barnealdizkariak, liburutegiak, etab.
- Komentuetan lan-antolamendu berria, kanpoko eske eta eskaintzei lotuagoa.
- Kanpoko gizartearekin harreman bizkorragoak: ekonomian, lanean, osasun-munduan, etab.

Gaur egun, arazorik larriena bokazioena da. Hiru Probintzietako 15 Komentutako Ahizparteak begiratuta (Agurain, Areatza, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Bermeo, Derio, Durango, Elgoibar, Gernika, Lekunberri, Oñati-Bidaurreta, Oñati-Sta. Ana, Portugalete, Zarautz), ziurki esan daiteke bokazioen etorrera erregularra 1970a aurretik moztu zela, kasurik gehienetan; harez gero, onenean, bizpahiruk egin du bere Profesa Nagusia Ahizparte bakoitzean, eta gehien-gehienetan azken-aurreko Profesa Nagusia 1960. etakoa izan da, Ahizparte zahartzen ari zen bitartean.

Nafarroa, Bizkai eta Gipuzkoan, hurbilpen gisara hautatu ditugun sei Komentuetan (Lekunberri, Arizkun, Portugalete, Durango, Elgoibar eta Oñati-Bidaurreta) Ahizparte horietako batezbesteko adinak, 67 eta 74 urte artekoak dira: Lekunberri, 66koa; Arizkun, 70ekoa; Portugalete, 74,5ekoa; Durango, 72,8koa; Elgoibar, 67koa, eta Bidaurreta, 68koa. Testuinguru orokorrean, Agurain izango da, uste dudanez, Euskal Herriko klaratarretan Ahizparterik gazteena, 1980tik hona gutxienez 11 lagu-

nek egin baitu Profesa Komentu honetan; bere 19 laguneko Ahizparte honek 64,63 urteko batezbesteko adina du.

Moja itxiena horrela dugula, nahitaezkoa da Aita Santuaren klausura gabeko moja frantziskotar ekilei buruz zer bait esatea.

### 5. 5. MOJA FRANTZISKOTAR EKILEAK

Moja frantziskotar ekileetako (*de vida activa*) hainbat Institutu izan da Euskal Herrian, gehienak XIX.ean sorturiko Kongregazioetakoak, eta, bereziki 1905az geroztik, Familia frantziskotarrera bilduak. Ehunka dira horrelakoak munduan, eta gurea ere etorri dira, bat izan ezik (Hirugarren Ordena kaputxino amigotarra) beste denak emakumezkoenak.

Guztien historia egiterik ez dugunez, datu gutxi batzuetara bilduko dugu dena. Emakumezkoen 14 (13) Kongregazio frantziskotar ezberdinek dauzkate edo eduki dituzte Etxeak Euskal Herrian. Etxe gehienak Hegoaldean egon dira (Iparraldean 5 bakarrik): orotara 74 izan dira.

Etxe-kopururik handiena bildu duen Herrialdea Bizkaia izan da (28), ondoren Nafarroa dator (25) eta urrunago daude besteak: Gipuzkoa (13) eta Araba (3). Etxe-kopururik altuenak izan dituzten Kongregazioak ondoko hauek dira: Familia Santuaren Ahizpa kaputxinoak (15 Etxe: *Capuchinas de la Sda. Familia*), Espiritu Santuaren Frantziskotarrak (11/12: *Franciscanas del Espíritu Santo-Montpellier*) eta Aholku Oneko Amaren Frantziskotarrak (10: *Franciscanas de Ntra. Sra. del Buen Consejo*).

Bizitza laburreko hainbat Etxe dago zenbatu ahal izan ditugunetan, eta, oro har, uste dut 30etik gora direla lehentxeago edo geroago itxitakoak. Dagoeneko, Kongregazioaren batek Euskal Herriko bere Etxe guztiak itxi ditu (zeuzkan seiak, denak ere Gerra Zibiletik hona irekitakoak). Etxe bakar bana izandako lau Kongregazio daude, eta dagoeneko laurak itxiak.

Kongregazio hauek ez dira izan sektore bakar batean berezituak; aitzitik, sektore ezberdinetan jardun dute. Hezkuntza/Irakaskuntza da pisurik handiena duena guztien artean, eta ondoren datoz, askoz atzerago, osasun-mundua (klinika pribatuetan), zerbitzu soziala (Zahar-Etxeak batik bat) eta Erakunderen bateko etxeko barne-lanak edo ardurak (Seminarioak: Iruñea, Arantzazu; Gogartetxea; Gotzain-Etxea). Kongregazio hauetako hiruzpalau Nobiziategi ere egon da Euskal Herrian.

Moja itxiena eta gizonezko Institutuena bezala, lekaike frantziskotar ekileena ere aro historiko

berri batera pasatzeko trantzean dago. Etxeak ez ezik Institutuak ere, luzaro gabe birmoldatu eta birbideratu egin beharko dira, nahiz eta uste dudana, indarrak gordinagoak daudela hemen, Komentu itxietan baino. Hala ere, demografiak agintzen du, bere krudeltasun guztiz.

### 6. HISTORIA HONETAKO EZAUGARRI OROKORRENAK

Familia frantziskotarrak Euskal Herrian izan duen historian ezaugarri orokor batzuk barrunta daitezke, eta hemen azpimarratuta utzi nahi ditugu.

1. Euskal Herriko frantziskotar mugimendua goiztarra izan zen, nahiko segurutzat eman daiteke San Frantziskoren bizialdian bertan hemen bazeudela haren jarraitzaileak: nik neuk, 1220ko urtea data egokitzen emango nuke lehen etorreraren urtetarako.
2. Geroztik, bere osoan, iraupen luzekoa (*à longue durée*) izan da Familia eta Institutu frantziskotarren Euskal Herriko historia; Erdi Aroan eta Modernoan beti are eta gehiago garatuz joan ziren Institutu hauek, sei mendeko hazkuntza eutsian. Esklaustrazioak eten zuen hori fraideen artean, baina orduan ere estu baina sano atara ziren emakumezkoak Hegoaldean. Haatik, fraideak izanberritzean, bigarren loraldi bat ezagutu dute denek -fraide eta moja itxiek- XX. mendean. Hortaz, ia zortzi mende bete ditu Familia honek Euskal Herrian.
3. Bizialdi luze horretan, Familia frantziskotarra *erreforma eta fundazio* berrien bidez indarberrituz joan da, esan dugun bezala bi mendetik behin txerto berriak garatuz (obserbantzia, kaputxinoak, kongregazio berriak...).
4. Euskal Herriko *Erdi Aro frantziskotarra* gutxi ezagutzen dugu, oraingoz; gehienbat alde instituzional eta sozialaz ditugu unean uneko albisteak, jarraitasun handirik gabekoak, bestalde. Komentuetako orduko barne-bizitza, pastorala edo joan-etorri kulturala ezin ditugu apenas atzeman, Ordenako arau orokorretatik ez bada.
5. Euskal *Lurraldearen luze-zabalean* Familia frantziskotarrak nahiko hedapen geografiko osoa eta orekatua izan zuen Aro Modernoan; baina Iparraldeko barnealdean gutxieneko presentzia bat izan zuen bakarrik (Mauleko kaputxinoena).
6. *Aro Garaikidean* frantziskotarren presentzia aberatsagoa izan da Institututan, eta, bestalde, herritarren eliz elkarteak sekula baino indartsuago agertu dira (mende-erdi batean, bederen: 1910-1960); hala ere, frantziskotar<sup>ofm</sup> izanberrituek garai bateko



- pisu erlatiboaren tamaina ez dute berreskuratu ahal izan, ez Komentutan, ez hedapen geografikoan (Iparraldean, Nafarroan, Araban).
7. *Emakumezkoen protagonismoa* nabaria izan da Aro Garaikideko estatistiketan, batez ere Kongregazio modernoei esker. Institutu horietako batzuek gure herrian txertatze eskasa izan duten bezala, beste zenbaitek hemen aurkitu du bere bokazioen harrobi emankorrena.
  8. Euskal Herriko *frantziskotartasuna komentutarra* izan da, oro har (hitz hau bere adiera orokorrean hartuta): bakarlekuak edo eremitorio eta komentutxo txikiak baino Anaiarte handiak eta eraikin ongi garatuak sortu zituen, alegia. San Frantzisko hil ondoren Elizak eta Ordenako korronte nagusiak urratutako arrastoan beraz, baita Obserbantzia bera ere, honen lehenengo unek (Izaro) eta geroko salbuespenak salbuespen.
  9. Hiru Probintzietan *governabide harmoniatsu* bat lortu zen Aro Modernoan (Akordio Laukoitza), eta horrekin batera bertako frantziskotarren beregintasan egokia "Kantabria" deituriko Probintzian, Nafarroa eta Iparraldea erbesteko barrutietan geratu ziren bitartean (Erdi Aroa, Aro Modernoa). Euskal Hegoaldean, Izanberrikuntzako testuinguruan eta garaiko dinamikaren erakarmenez bildu zen beste Herrialdeen artera Nafarroa, bertako Etxe bakarrak (Erriberri/Olite) protagonismo estimagarria hartuz.
  10. Aipatutako komentutartasun horretan, *Anaiarteko ezberdintasunak* legezatu egin ziren, arautu: hein batean, berdintasunerako antolaera baino ezberdintasun batzuk hobestera iritsi zen sistema (apaizak/laikoak, eskolatuak/eskolatu ga-beak, burulana/eskulana, etab.). Hasieran ezberdintasunean hasitako fraidea urteekin are ezberdinago bilakatu ohi zen Anaiartean.
  11. Fraideen *lan-munduetan* nabarmentzen da ezberdintasun hori Aro Modernoan, eta gero ere, harik eta Vatikanoko II.ak eta Ordena-barneko gogo-berritzeak bestelakorik lagundu duen arte: etxeko lanak/pastoral lanak, etxeko bulegoak, pastoraletan sakramentuak, liturgia, predikua, eskola, etab. Kulturaren eta ikastearen San Frantziskok ikusten zituen arriskuak praktikan eta arauetan bizitza arrunterako onetsiak gertatu ziren.
  12. Komentuetako espiritualitate eta *santutasunaren historia* egiteko dago, nahiz eta kronika zaharretan hagiografiak kapitulu luzeak hartu ohi zituen, eta ikuspuntu honetatik aztertzeak dira fraideen irakurgaiak, etxetako liburutegiak eta espiritu-maisuen hautuak. Honek guztiak berdin balio du fraideek zuten *kulturari* buruzkoetan (hezkontza, ikasketak, etab.).
  13. Gizartean Ordenek izandako *erakarmen-inda-rra* agerian dago, Komentuen eraikuntzan ez ezik ondoko bizialdian ere: fundazioak, kapilautzak, herentziak, etab. Komentua inguruko sistema bati loturik egon ohi zen, botere-egituretatik hurbil, eta "ongile" deituekin harreman onetan.
  14. *Herri xumea*, frantziskotarren kasuan, ez dirudi bereziki urrun egon ohi zenik; aitzitik, herritarren estimua, mirespena eta maitasuna ere ez zitzaizkien falta izan, beraien karisma herritarrak lagundurik noski, baina baita ondoren esango dugun arrazoiarengatik ere.
  15. Hein handi batean, frantziskotarrak zinezko eskaleak dira, *limosna-eskaleak*, herritarren borondate onari eta beraien eskuzabaltasunari esker segurtatzen zuten beren ekonomia arrunta. Gainerako Eskeko Ordenak bezala, baina beren Komentu-kopuruagatik gainerakoak baino presentzia zabalagoarekin.
  16. Jatorrizko karismaren intuizioak, Elizaren premia eta erabakiek, boteredunen babesak, herri eta gizartearen laguntzak eta eskeek eraman dute aurrera Ordena frantziskotarretako proiektu instituzionala. Gaur arte.



## ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

### A) ITURRIAK

- Iturriei buruz hemen esatekoak oso laburrak dira:
1. Erregimen Zaharreko Hiru Probintzietako fraide eta komentuen historia Kantabriako Artxiboarekin galdu zitzaigun, eta horrek erremedio zaila du: Erroma (Vatikano, Ordenetako Kurietako artxibategiak), Madril (AHN), Iruñea eta Kalahorrako Artxibo diozesitarrek, euskal Herrialdeetako artxibo orokorrak (Biltzarrak, Aldundia, Protokoloak), herrietako Udal Artxiboak, mojen Monasterioetako artxibategiak eta abar begiratu behar dira. Uribe 1988-1996-k (*La Provincia franciscana de Cantabria*) hainbat argibide du artxibo erabilgarriei buruz (I, 15-16; II, 15-16) eta beronen hitzaurreak irakurtzekoak dira (I, 17-129; II, 17-22). Bestalde, K. Zubizarretak hemen berton dioskuna gogoan izan behar da (Zarautz, Arantzazu...). Nafarroako komentuen Aro Modernoa Burgosko Probintzia erlijiosoko papere-tan aztertu behar da (ik. Naxerako komentuko artxiboan parte bat, Tuteran barne dela). Iparralderako Departamentu-Artxiboetan arakatu behar da, ahal dena (Paue), Baionako Artxibo diozesitarrean.
  2. Izanberrizetik honakoak (1859...) Arantzazu Probintziako Artxiboan daude Hegoalderako (Zarautz, Arrasate, Donostia), eta Komentu bakoitzak du, gainera, berea. Berorietara iristeko ik. K. Zubizarretak hemen utzi dizkigun oharrek eta aurkezten dituen lanabesak. Oro har, komentuni da Z. Solaguren-en oharrek irakurtzea: "Fuentes de información", in: *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX. Vicisitudes y nomenclador bio-bibliográfico* (argitaratzeko). Iparraldeko albisteak Akitaniako artxibo probintzian (Okzitaniako Tolosan) nahiz Donapaleuko komentuan. Bestalde, Kongregazio modernoena Institutu bakoitzaren artxiboetan eta Etxe bakoitzarenean bilatu behar da.
  3. Euskal frantziskotarren<sup>ofm</sup> kanpoko hedapena ezagutzeko iturriak oso sakabanatuta daude, noski. M. Errastiren albisteek (hemen berton) lagun lezake eremu geografiko jakin baterako (Karibe, Ertamerika, Mexiko, Estatu Batuak). XX. mendekoaz tokian tokiko iturriak bilatu behar dira, eta, hasteko, Arantzazu Probintziako Artxiboak ere balio lezake. Gainerakoan, ez dago EHan eskueran artxibo bateraturik atzerriko albisteak bertatik bertara jaso ahal izateko (karmeldarrek, partez bederen, Gasteizen duten bezalakorik).

### B) BIBLIOGRAFIA

Hemen aipatzen den bibliografia, egindako azalpenerako erabili ditugun liburu eta artikuluen da, besterik gabe.

- Agirrezabala/Beraza 1998 AGIRREZABALA, L.; BERAZA M.; INTXAUSTI, J. (1998): *Aportación personal de Euskalerría al movimiento regular franciscano*. Zarautz. (Edizio mugatua).
- Bartoli 1992 BARTOLI, M. (1992): *Clara de Asís*. Oñate: Ed. Franciscanas Aránzazu.
- Di Fonzo 1977 DI FONZO, L. (1977): "Les frères Mineurs Conventuels", in: DHGE. XVIII, 911-932.
- Di Fonzo 1978 DI FONZO, L.; ODOARDI, G.; POMPEI, A. (1978): *I Frati Minori Conventuali. Storia e vita 1209-1976*. Roma: Curia Generalizia O.F.M. CONV. (Ik. DIP ere).
- Emery 1962 EMERY, R. W. (1962): *The Friars in Medieval France. A catalogue french mendicant convents, 1200-1550*. New York/London: Columbia University Press.
- Fernández-Gallardo 1999 FERNANDEZ-GALLARDO, G. (1999): *La supresión de los franciscanos conventuales de España, en el marco de la política religiosa de Felipe II*. Madrid: Fundación Universitaria Española.
- Frantzisko Asiskoa 2002 (2002): *Asisko Frantzisko. Idazkiak, Biografiak eta garaiko dokumentuak*. Oñati: Arantzazu. (Ik. Klara Asiskoa 2002).
- García Oro 1988 GARCIA ORO, J. (1988): *Francisco de Asís en la España medieval*. Santiago de Compostela: CSIC/Liceo Franciscano.
- Golubovich 1908 GOLUBOVICH, H. (1908): "Series Provinciarum Ordinis Fratrum Minorum. Saec. XIII et XIV", in: *Archivum Franciscanum Historicum*. I, 1908, 1-22.

- Goñi Gaztambide 1990 GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1990): *Historia eclesiástica de Estella*. Tomo II: *Las Ordenes Religiosas (1131-1190)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- Holzapfel 1909 HOLZAPFEL, H. (1909): *Manuale historiae Ordinis Fratrum Minorum*. Friburgi Brisgoviae: Sumptibus Herder.
- Homenaje 1935 (1935): *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria en el septuagésimo quinto año de la Restauración (1859-1934)*. Aránzazu: Impr. de la Rev. "Aránzazu".
- Intxausti 1998 INTXAUSTI, J. (1998): *Euskal historialariak eta frantziskotarrak. Azterketa historiografikoa*. Oñati: EFA, Frantziskotarren Argitaletxea.
- Intxausti 2002 INTXAUSTI, J. (1998): *Gure herriko frantziskotarrak. Herrietako historia garaikidea (1791-2000)*. Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak.
- Iriarte 1979 IRIARTE, L. (1979): *Historia franciscana*. Valencia: Editorial Asís.
- Isasti [1625] ISASTI, L. de (1972): *Compendio historial de Guipúzcoa*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Klara Asiskoa 2002 (2002): *Asisko Klara. Idazkiak*. Oñati: Arantzazu. (Ik. Frantzisko Asiskoa 2002).
- Le Goff 1999 LE GOFF, J. (1999): *Saint François d'Assise*. Paris: Gallimard.
- Le Goff/Schmitt 1999 LE GOFF, J.; SCHMITT, J.-Cl. (1999): *Dictionnaire raisonné de l'Occident Médiéval*. Paris: Fayard.
- Leclerc 1994 LECLERC, E. (1994) : *Francisco de Asís. El retorno al Evangelio*. Oñati: EFA.
- Lemaître 1926 LEMÂÎTRE, H. (1926): "Géographie historique des établissements de l'Ordre de Saint François en Aquitaine (Sud-Ouest de la France), du XIII<sup>e</sup> au XIX<sup>e</sup> siècle", in: *Revue d'Histoire Franciscaine*. III, 1926, 510-574.
- López 1914 LOPEZ, A. (1914): "Viaje de San Francisco a España", in: AIA. I, 1914, ¿?-¿?.
- López 1915 LOPEZ, A. (1915): *La Provincia de España de los Frailes Menores. Apuntes histórico-críticos sobre los orígenes de la Orden Franciscana en España*. Santiago: Tip. de "El Eco Franciscano".
- Maiz/Solaguren 1978 Ik. Solaguren/Maiz 1978.
- Manselli 1997 MANSELLI, R. (1980): *San Francesco d'Assisi*. Roma: Bulzoni. (Bada gaztelaniazko itzulpena ere: (1997): *Vida de San Francisco de Asís*. Arantzazu. Gure aipuetan azken hau da darabilgun edizioa).
- Miccoli 1994 MICCOLI, G. (1994): *Francisco de Asís. Realidad y memoria de una experiencia cristiana*. Oñate: Edit. Franciscana Aránzazu.
- Moorman 1988 MOORMAN, J. R. H. (1988): *A History of the Franciscan Order from its Origins to the Year 1517*. Chicago: Franciscan Herald Press. (Lehen ed.: (1968): Oxford: Clarendon Press).
- Omaechevarria 1972 OMAECHEVARRIA, I. (1972): *Las Clarisas a través de los siglos*. Madrid: Editorial Cisneros.
- Omaechevarria 1999 OMAECHEVARRIA, I. (1999): *Escritos de Santa Clara y documentos complementarios*. Madrid: BAC (314).
- Pavie 1901 PAVIE, O. de (1901): *La Aquinaine seraphique*. Auch : Impr. Litho-typographique Foix. (II. Liburukia).
- Pisanus [1390] PISANUS, B. ([1390] 1906): "De conformitate vitae Beati Francisci ad vitam Domini Iesu", in : AF. IV, 1906, 535-539.
- Pobladura POBLADURA, M. de (1977): "Les capucins", in: DHGE, XVIII, 932-958.
- Roggen 1977a ROGGEN, H. (1977): "Les clarisses", in: DHGE, XVIII, 958-965.
- Roggen 1977b ROGGEN, H. (1977): "Le Tiers Ordre séculier et régulier", in: DHGE, XVIII, 965-971.
- Sagüés 1960 SAGÜES, P. (1960): *El Padre José Areso, O.F.M. misionero y restaurador (1797-1878)*. Madrid: Editorial Cisneros.
- Sagüés 1981 SAGÜES, P. (1981): "Franciscanos en Olite: hasta 1880", in: *Cantabria Franciscana*. XXXIX, 1981, 15-28.
- Schmitt 1977 SCHMITT, Cl.; DE MUNTER, S.; AUBERT, R.; CEYSSENS, L.; ROGGEN, H. (1977): "Ordre de St. François", in: DHGE. XVIII, 824-911.

- Solaguren s. d. SOLAGUREN, C. (s. d.): *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX. Vicisitudes y nomenclador bio-bibliográfico*. San Sebastián. (Argitaratzekoa).
- Solaguren/Maiz 1978 SOLAGUREN, C.; MAIZ, J. J. (1978): *La Exclaustración y Restauración de los Franciscanos de Cantabria y el P. Mariano de Estarta (1804-1878)*. Aránzazu: EFA.
- Uribe 1960 URIBE, A. (1960): "Estado de la Provincia de Cantabria en el siglo XVII. Dos relaciones inéditas de 1646 y 1680", in: AIA. XX, 1960, 5-77, 205-242, 383-418, 537-572.
- Uribe 1988 URIBE, A. (1988): *La Provincia franciscana de Cantabria. I. El franciscanismo vasco-cántabro, desde sus orígenes hasta el año 1551*. Aránzazu: EFA.
- Uribe 1996 URIBE, A. (1996): *La Provincia franciscana de Cantabria. II. Su constitución y desarrollo*. Aránzazu: EFA.
- Uribe 2000 URIBE, A. (2000): *San Francisco de Bermeo. Luces y sombras de su historia*. Bilbao: Doniene.
- Varii 1999 VARIO (1999): *Francisco de Asís y el primer siglo de historia franciscana*. Oñati, Editorial Franciscana Arantzazu. (Originala: (1997): *Francesco d'Assisi e il primo secolo di storia francescana*. Torino: Einaudi).